ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

atara miñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

Aurkibidea:

Sarrera: "Preso idazleak ala idazleak preso?" — **5**
Mikel Ayllon: "Hildakoez gainezkako lurretan sortu ginen" (1) — **9**
Iñaki Ojeda: "Txapel": "Siempre tendran algo", "No me callarán", "Mirando hacia atrás" — **11**
Jon Mirena San Pedro: "Denboraren garbiketa" (2) — **15**
Zorion Zamakola: "Ez dut biharko argirik ikusiko" (3) — **17**
Harriet Iragi: "Gartzelako Bertsoak" — **29**
Jokin Urain: Errekurtsoak, "Xilingo deitzen diogu" — **35**
Carmen Gisasola: "Brieva", "Ausentzia", "Auzitegian" "Heriotzaren hautsa", "Agurra" — **51**
German Urizar: " Carta a una sirena", "Mikologia" — **57**
Joseba Arregi: Marrazkiak — **65**
Julen Larrinaga: "La habitación última" — **73**
Josu Ormaetxea: "Hamaikagarrenez, maitatzearen tinkotasunez" "Errieta", "Lehenean bezala", "Itsaso" — **85**
Joseba Garmendia: "Aurrez-aurreko sasi-poemak" — **91**
Idoia Lopez Riaño: "Giltzaperatzea", "Edozein egun", "Bakardadea", "Gutunak", "Bisita", "Eta bihar…?" — **95**
Piston Turbinaga: Poemak — **103**
Peru Alvarez: "Kutxa Magikoa" — **107**
Jon Gaztelumendi: "Abenduaren begien aurrean" , "Guallapu", "Poemak" — **127**
Enrike Letona Biteri: "Jarrera", "Aurki ezazu", "Badago zer sendatu", "Bakardadea eta biok" (4) — **135**
Iñaki Gonzalo Casal: Poemas — **143**
Iñaki Rekarte: "Andrea Bocceli", "Natura" — **151**
Xanti Iparragirre: "Ni ez naiz gerraren zale", "Borda zaharrean"(5) — **157**

---

(1) AYLLON, Mikel in Boltxevike. 3zbk. 2002ko negua
(2) SAN PEDRO, Jon Mirena in Boltxevike. 2 zbk. 2001eko udagoiena
(3) ZAMAKOLA, Zorion : Ez dut biharko argirik ikusiko. XI edizioko Euskarazko lehen saria. Bilboko udaleko Kultura eta Turismo saila
(4) LETONA BITERI, Enrike in Putz apokaliftia. 15 eta 16 zbk. 2002ko ekaina-iraila.
(5) IPARRAGIRRE, Xanti in Biziaren azala. XX mendeko Iparragirre. Bertsolari Liburuak.1998

Sarrera
Iñaki Gonzalo Casal, Kitxu
Dueñas espetxetik

Preso idazleak ala idazleak preso?

Kontatzeko zerbait izatea da ipuin bat idazteko behar den gauza bakarra. Beste guztia ondoren etorriko da, samaldan. Norberak idazteko duen erraztasuna edo trebetasuna, idatziko duzuna nori zuzenduta dagoen gogoan izatea, buruan duzun istorioa gizarteari helarazteak zerbaiterako balioko ote duen jakitea... elementu hauek guztiak kontuan behar ditu izan idazleak bere eginkizunari ekin baino lehen, baina, berriro diot, liburu edo poema edo ipuin bat idatzi baino lehen esateko zerbait izan behar du kontalariak. Hain garrantzitsua den baldintza hau betetzen dugun oro preso gaude. Idazleak gara eta, aldi berean, preso. Kartzelan gatibu egon arren idazletzat jotzen dugu geure burua, esateko zerbait dugulako eta ahalmena eta baliabideak ditugulako kontatu nahi duguna nola edo hala kontatu ahal izateko.

Hau honela izanda eta hain oinarrizkoa dirudien arren, ez dute beti hain argi ikusten askatasunean bizi direnek. Asko eta asko dira gaur egun Euskal Herrian presook preso izateagatik idazten dugula pentsatzen dutenak.

Nork ez du inoiz pentsatu euskal preso politikook erraztasun handiagoa dugula, baliabide gehiago ditugula eskura, liburu bat argitaratu ahal izateko? Eta agian egia izango da; agian gure herriaren alde borrokatzeagatik espetxean gaudenoi aukera gehiago ematen dizkigute lehenengo idazkia argitaratzeko, baina nik, idazki honen bidez, preso gauden idazleok dugun idazteko ahalmena erreibindikatu nahiko nuke.

Nire lehenengo liburua, "Carta a un fantasma", Navalcarneron idatzi nuen. Arratsalde batean, ohean eserita nengoela, giltzari batek nire txaboloko leihatilatik ikusi ninduen, nonbait, eta, parte bat jartzeaz gain, koltxoia ateratzeko agindua eman zidan (guztiz debekatuta genuen egunean zehar ohean eserita edo etzanda egotea). Aginduari jarraituz koltxoia atera nuen eta plastikozko aulkian eseri nintzen paper txuri baten aurrean.

Orduan bururatu zitzaidan liburu bat idazteko ideia. Lehenengo esaldia idazti nuen eta esaldi horren ondoren beste bat eta beste bat... hitz baten atzean beste hitz bat eta irudipen batekin lotuta beste irudipen bat... eta horrela, aurrean nuen paper txuri hori bete arte, koltxoiarena guztiz ahaztu arte. Papertxoan idatzitakoa irakurri nuen eta argi bat piztu zitzaidan bihotzean. Gai izango ote nintzen hasitakoari jarraipena emateko?

Idazmakina bat txaboloan izateko baimena gau hartan eskatu nuen eta ezezkoa handik bi egunetara jaso nuen, No procede por razones de seguridad. Bale, orriekin eta boligrafo batekin nahiko nuen nire ametsa egia bihurtzeko.

Baina giltzariak nire ametsaz jabetu omen ziren eta gauetan idazten nuena goizeko araketetan izorratzen saiatzen ziren. Kartoizko karpeta urdin batetan gordetzen nituen ametsez beteriko orriak lurrean nahastuta edo komuneko uretan sartuta agertzen ziren goizero...

Zerbait egin behar nuen! Eta zera erabaki nuen: patiora ateratzean orriak barrabiletan izkutuan eramatea. Lehenengo egunetan ez nuen arazorik izan, baina kartzeleroak eguneroko katxeoan nire idazkia txaboloan ez ikustean nire amarruaz jabetu ziren eta goiz batean biluzteko agindua eman zidaten; prakak jaitsi eta han agertu ziren orriak kaltzontzilo eta barrabileen artean... A ze haserrea hartu zuten! Orri guztiak kendu zizkidaten. Ez, ordea, nire ametsa. Oztopoz oztopo eta zailtasunez zailtasun nire lehenengo liburua bukatzea lortu nuen. Nola? Oraindik ez dakit ondo baina ametsak ezin dira inoiz amets hutsetan gelditu.

Valdemoron nengoela eskuz idatzitako liburu saiakera argitaletxera bidali nuen eta handik gutxira erantzuna heldu zen: Istorio polita, ondo idazten duzula somatzen da baina... askoz hobeto egin dezakezu gauza batzuk aldatuz gero... hori izan zen gutxi gorabehera editoreak eman zidan erantzun borobila. ¡De puta madre! pentsatu nuen eta eskutitza jaso nuen egun berean gauzak aldatzeari ekin nion, Valdemoron idazmakinak debekatuta ez zeudela aprobetxatuz. Navalcarneron bueltan arazoak berriro hasi ziren, baina indartsu nengoen nire ametsa gero eta hurbilago ikusirik.

Hiru aldiz zuzendu behar izan nuen nire eskuizkribua, baina azkenean Txalapartak argitaratu zuen nire ametsa egia zoragarri bihurtuz. Ocañan "Hace frío aquí en España" olerki liburua idatzi nuen eta HIRUk argitaratu zuen, eta La Moralejan "Nadine".

Oraindik gogoan ditut Navalcarneron eta beste espetxeetan igarotako une latzak baina bizi izan ditudan zailtasun guztiek aurrera jarraitzeko indarra eman didatela ez dut gaur egun duda izpirik.

"La barca de Amín", Algeriako independentziaren gerrari buruzko eleberri bat izan da nire erronkarik berriena eta ez da azkena izango ziurrenik, idazteko grina barru-barruan dudalako eta egunero bizi behar izaten dudan errealitate beltz eta ilun honetatik ihes egiteko ez dudalako orain arte beste era hobeagorik aurkitu.

Idazle bihurtu naiz kartzelan, bai, baina hori, bizitza honetako gauza guztiak bezala, kasualitate hutsa izan da. Edo ez? Agian ez dut inoiz jakiterik izango.

Mikel Ayllon Corral
1980
Laudio

2000 martxoaren 6an Haikako kidea izatearen akusaziopean kartzelaratu zuten. Gaur egun kalean dago, behin-behineko askatasunean.

Hildakoez gainezkako lurretan sortu ginen

Hildakoez gainezkako lurretan sortu ginen
gu ere hiltzera kondenatuak geundela ulertu genuen
lantzean behin gure buru gainetik
iragaten ziren balei so egiten genien
eta gutarik batzuk
lurrean etzaten ziren heriotzari itxaroteko
begiak itxita.
Zutik mantentzea erabaki genuenok
hil haiek guztiak
gure hilak zirela ulertu genuen,
lur hura
gure lurra
eta bizitzera ausartu ginen
horrela hiltzera arriskatzen ginela jakin arren.
Beldurrik ez daukagula esatea
gezurra esatea da
baina are faltsuagoa da
gure lurra maite ez dugula esatea
eta horregatik munduan zehar
gure lurraren zati bat poltsikoan pasiatzen gara
hilko garenean
gure lurrean hiltzeko beti.
Gero agian beste batzuk jaioko dira
gu hil ginen lur horretan
eta agian noizean behin
gure hilobiak bisitatuko dituzte
beraiek ere hiltzera kondenatuak ote dauden galdezka.

Iñaki Ojeda Martin "Txapel"
1963
Portugalete

Espetxean izan zen 1981etik 1983ra arte. Espainiako Poliziak erahil zuen Gurutzetan 1984ko otsailaren 16an.

Siempre tendrán algo

Si tuvieramos alas los hombres
¿dónde nos meterían,
en una jaula de espinas
o entre muros
con las alas cerradas?

Si fuéramos peces los presos
¿qué cárcel nos harían?
Una pecera
sin luz, posiblemente una fría bañera.

O si fueramos viento
¿qué solución buscarían?
¿una cárcel de rocas y montañas?
No.
¿Algún gran agujero, sin fondo, perdido?
No.
¿El hielo, al fuego, alguna extraña caverna?
No, no.

Nos dejarían sin la tierra, sin mundo,
extraviados muertos a través
del silencioso Universo, mudo.

Pto. Sta. Maria

No me callarán

El día que se acabe
la tinta de mi pluma
escribiré con mi sangre,
la usaré en el papel.
Cuando se me acabe
el papel
escribiré la sangre
sobre mi carne
Pero nunca me callarán.

Pto. Sta. María.

Mirando hacia atrás

Mirando hacia atrás
el camino recorrido
entre recuerdos
y olvidos,
profano la maldita
humanidad,
carroña del progreso
incivilizado
humanizado por las
escuelas
de tiranos y asesinos.

Entonces me da por
bailar, gritar,
meter ruido,
reirme de los muertos,
llorar por los vivos.

Me percato del
fusil,
lo mantengo entre
mis manos,
sé como utilizarlo,
el porqué,
cómo cuidarlo.
Arriba la revolución
si es mundial,
pues doble
será mi gozo.

Pto. Sta. María

Jon Mirena San Pedro Blanco
1970
Deustua

1999an atxilotu zuten Parisen,
eta egun Tarascon-go espetxean dago.
Estatu espainoleko gartzeletan ere preso egon
zen lau urtez.

Centre Pénitentiaire Tarancon
Chemin Départamental 122
B.P. 82. 13150
Tarascon
FRANCE

Denboraren garbiketa

Nola deitzen da orenak eskuz akatzeeko arte-a?.
Goizalbak hatzazkalez urratzeko gaitasuna?.
Arratsak eztarriratuz, gauak janez, gordin gordinak
segunduak, minutuak tragoxka edaten,
geure burua denboraz orditzeko
ahalik eta lasterren…
Nola deitzen da bizitzak bere estartak zeharka ditzan
jorratu behar den atzeraezinezko ildoa?.
Eta zuk,
nola deitzen diozu honi?.
Zelan izendatuko zenuke zigor ziegetako ibilera
maparik gabe eta lurralde ezezagun bezain ilun,
hotz eta zikinetan?

Zorion Zamakola Ibaibarriaga
1965
Ermua

2001an atxilotu zuten Frantzian.
Gaur egun Bois d'Arcy espetxean dago.
Hainbat literatura sari irabazi du.

Maison d'Arret des Yvelines
5bis, rue Alexandre Turpault
78.395 Bois d'Arcy.
FRANCE

Ez dut biharko argirik ikusiko

Ez dut biharko argirik ikusiko. Zirriborro hauek amaitu ostean oheratu egingo naiz, eta begiak betirako itxiko zaizkit. Hil egingo naiz, bai, gaitza da horrela esatea baina ondorengoak izango dira nire bizitzako azken orduak.

Egoera berezia da hau. Beldurrak nago, ez dut ukatuko, baina nire patuaren ezagutzak halako lasaitasun itxura bat ematen dit. Nire eskuak dardarka daude, ostera, eta balizko irakurleak zailtasunak izango ditu idazkera estu eta trakets hau aditu ahal izateko.

Beti esan izan didate ortografia hobetu behar dudala —baita umetan ipurdia makilaz berotzen zidan maisu zitalak ere!—Halere, oraingo honetan inork ez dit ezer leporatuko, inoiz baino idazkera baldarragoa eduki arren.

Nork irakurriko ote du lehenengo hau? Aitorrek, seguraski. Bihar goizean Amelia etorriko da asteazkenero moduan etxea txukuntzera. Nire gorpua ohean hilik ikusten duenean oihu batek irtengo dio ahotik eta berehala —ikusten dihardudala ematen du—, burua lasaitu eta zer egin behar duen pentsatuko du. Ameli beti izan da pertsona zentzuduna eta. Hortaz, nire seme nagusiari deituko dio eta zuk, Aitor, paper hauek aurkituko dituzu mesanotxe gainean bis-bistan.

Ez da testamendua, lasai. Ondotxo dakizue nire ondasunak zelan banatuko dituzuen. Banatzeko larregi ere ez dago eta! Zure aita den agure honen azken burutazioak baino ez dira. Ez dut inorentzako idazteko asmorik, neronentzat ez bada. Segi aurrera gura baduzu, beraz, edota bota zakarrontzira bestela. Ni ez naiz haserretuko (ja, ja, ja).

Duela ordubete inguru jakin dut gaur gauean hilgo naizela. Harrez gero bizitza osoko gertakizunak zurrunbiloan darabiltzat gogoan: umetako jolasak, eta jolaslagunak, amaren sutondoko ipuin saioak, baserriko gorabeherak, gudako oinazeak, duela hamar urte joan zen Maritxurekin ezkontza, umeen jaiotza, Mikelen erbesteratzea....

Bat da, ordea, beste guztien gainetik datorkidana eta horixe da, finean, orain idazteari ekiteko arrazoia. Edo bizirik nagoen sentipena ahalik eta luzeen xurgatzea, batek daki. Noan, baina, harira. Ez dut hau amaitu baino lehen loak hartzea nahi.

Gertakizuna gudan izan zen, artean nik hemeretzi urte baino ez nituela. Elgetako frontean geunden, elkarrekin gerrara joatea erabaki genuen auzoko bost lagunak: Joxe Miguel, Fernando, Pelayo, Patxi eta Luis Mari, ni neu. Gu heldu berriak ginen eta oraindino guda ezagutu ez duenaren eta gaztetasunaren alaitasuna genuen. Lehenengo egunetan tiro solteak baino ez genituen entzun, eta gu baino helduagoak —gudan helduagoak esan beharko nuke hobeto—zirenei jaramon egin barik txoriburuen pare ibiltzen ginen, eskasegiak genituen munizioak axola gabe alferrik galtzen.

Behin batean tenienteak patruila batetara bialdu gintuen Fernando, Patxi eta hirurok, karlistek mugimendu asko zerabiltela eta, ea berauen atzekaldean zeozer ikusi ahal genuen.

Patxi eta Fernandoren inbiriazko keinuei barrezka erantzunez ilundu bezain laster abiatu ginen "karlistei musturrak berotzera", Pelayoren hitzetan.

Ilargi bako gauean murgildu ginen, bada, "benetako gudarekin" lehenengo kontaktua egitera. Ordu betera izarditan baina dardarka nengoen bapatean, ustekabean, edozein momentutan Heriorekin topo egin genezakeela ohartu nintzelako. Joxemiel eta Pelayo antzera bide zebiltzan, sakana txiki batean geldiunea egin genuenean hirurok ahots dardarti berberaz ihardun genuen eta. "Badakizue non demontre gauden?", batek; "ez jakiat, baina hemen ez dok mugimendurik ikusten", besteak. Oraindino ez genuen karlistarik ikusi. Gure zurrumurruaz aparte, gaueko kokuen etengabeko soinua baino ez zen entzuten.

"¿Quien va?" hotsak arnasa moztu zigun ustekabean. Ezer pentsatu eta egiteko denbora eman barik hasi ziren lehenengo tiroak. Hala edo nola gu ere tiroka hasi ginen, berrogeitahamar metro eskasetara piztu eta

itzaltzen ziren argietarantz. Inozoak halakoak, karlisten mutur aurrean ihardun genuen berbetan. Eskuetan granada bat hartu eta tiroak zetozen aldera jaurti nuen, justu nire oinetan beste granada bat jausi zela ohartzeko.

Albo batera salto egin nuen. "Kontuz, granada bat!" oihukatzen nuen bitartean. Argitasun bizi bat ikusi eta eztandak atzerantz bialdu ninduen.

Nire onera itzuli nintzenean tiroak eta eztanda hotsak entzuten ziren baina ni nengoen lekutik urrun xamar. Piska bat gehiago kostatu zitzaidan gaua ilunegi zegoenaz konturatzea. Begiak itxi eta zabaldu nituen baina alferrik; granadak itsutu egin ninduen.

Zelan azalduko ote dut mormentu horretan sentitu nuena? Ikara izugarria lehenengoa: karlisten aldean nengoen, itsututa, ez nekien ezta non nengoen ere. Eta Joxemiel eta Pelayo? ``Zuek non sartu zarete? Joxemi, Pelayo, non koño sartu zarete?", galdetzen nuen ahotsa larregi altxatzeko beldurrez. Eskuaz ingurua ikutzen hasi nintzen, tarrasean batera eta bestera. Zeozer biguna sentitu nuen halako batean, zeozer bigun eta bustia. Joxemiel zen. Itsututa ere beraren bizar iletsua ezagut nezakeen. Bera izan zen bizarra irten zitzaion lehenengoa, eta hogeitabat urte eskasekin harro-harro ibiltzen zen bizar dotorea erakusten.

Erraiak astindu zitzaizkidan eta botaka hasi nintzen. Hantxe geratu ziren, lagun mina izan nuenaren hilotzaren aldamenean, gaztetasunaren alaitasun eta freskotasun guztiak. Negar sotinka Pelayo aurkitzen ahalegindu nintzen, alferrik. Ez dut haren berri gehiago eduki eta seguraski Elgeta eta Bergara alde horretako zulo ezezagunen batean egongo da lurperatuta.

Azkenean, neure burua lasaitzea lortu eta oinez hasi nintzen, zorte piska batekin geure aldea edo baserritar jatorren bat topatuko nituen itxaropenez.

Zenbat denbora eman nuen noraezean, harri bakiotzarekin, zulo bakoitzarekin, adar eta enbor bakoitzarekin estropezu egiten? Nik luzea, oso

luzea eritzi nion. Egun argia ote zen ere ez nekien. Nekea gainditzuz eta indarra xahutuz zihoazkidan.

Halako batean musika antzerako bat entzun nuen, berbarik bako kantua. nor edo nork ahapeka ihardungo balu bezala. Harantz jo nuen, laguna izango zela sinetsi nahian. Egia esanda, nengoen egoeran edozein zen laguna. Soinuaren iturrira inguratu nintzenean konortea galduta bertan behera jausi nintzen.

—

Begiak zabaldu bezain laster ohartu nintzen ikusi egin ahal nuela. Seguraski eztandak une batez itsutu ninduen eta geroago berez bueltatu zitzaidan ikusmena.

Gela dotore batean nengoen, altzari zabar baina ondo zaindu ez hornitua. Eguzkia indartsu sartzen zen leiho irekitik eta kanpotik txorien ahotsa barneratzen zen, ohantzean itzaltzeko. Gezurrezko lekua zirudien hark, gudatik hain hur (ezin izan nintzelako luze heldu) eta hain baketsua, ostera. Norbaitek arropa aldatu zidan: uniforme urratuaren ordez pijama txukun eta garbia neukan aldean.

Gelako atea zabaldu eta gizon zahar bat sartu zen. Agurea idaztekotan egon naiz baina ez nuke hain seguru esango: berrogeitahamar eta hirurogeitapiku urte artekoa eman zezakeen; zaharragoa ere bai. Ni gaztea nintzen orduan eman zezaakeen; zaharragoa ere bai. Ni gaztea nintzen orduan eta adinak neurri ezberdina hartzen du sasoiaren arabera.

- Esnatu zara, azkenean—esan zidan agur moduan.
- Zenbat denbora eman dut lotan, bada? Eta non nago?
- Nire etxean zaude; basoan aurkitu eta hona ekarri zaitut.
- Karlisten aldean nago?—bota nuen, kortesiaren gutxiengo arauei jaramon egin barik. Ez nengoen horretarako!
- Nire etxean zaude eta hemen ez dizu inork trabarik egingo, zaude lasai

Hori entzunda nazionalistek hartutako lurretan nengoela pentsatu nuen. Menturaz agure hori koronelen baten laguna izango zen; Menturaz horri esker etxea bakean zegoen; menturaz etxaguna burutik zegoen eta niri laguntzeko prest, zer nekien, ba, nik.

-Barkatuko nauzu, oraindik ez dut neure burua aurkeztu, Luis. Mari Zabala naiz...
- Bai, bai, badaukat zure berri.
- Zelan, ba?—harritu nintzen.
-Ametsetan ihardun duzu eta gauza askotaz jakiteko aukera eduki dut—eta gaia aldatu guran edo, gaineratu zuen—Lorategia ezagutu gura duzu? Badaukazu nahikoa indar?

Gogoz onartu nuen proposamena. Lorategia txukuna zen, oso zabala eta ezin baketsuagoa. Txoriek alaitsu zidarduten, katamiar bat ere ikustea eduki nuen... Lasaiegia zen dena, gudaren erdian.

- Ez dira tiro eta kanoi hotsak entzuten... azaldu nion.
- Ez, zoko berezia da hau. Guda hur egon arren, orain arte ez dit trabarik eragin -lasaitasun osoz ziharduen. Berdin ihardun zezakeen eguraldiaz edo etxeko gorabeberez. Harritu egin ninduen, jakina, baina ez nuen horretan insistitu gura izan eta agurearen izaera egotzi nahiago izan nuen.

- Badabizu xake jokoan?—galdetu zidan supitoki, larrosa gorriz jositako landare bati hosto bat edo beste kentzen zion artean.
- Bai ba, gustokoa dut, gainera—Ah, zer nolako xakealdiak egiten nituen aita Teodororekin, nire xake maisuarekin. Gazte-gaztetatik irakatsi zidan. Amari "dotrina ikastera noa" esan eta pozarren lagatzen nuen, aita Teodororekin pieza haien sekretuak ikastera joaten nintzenetan. Huraxe zen gure dotrina sekretua!
- Ederto, ederto—erantzun zidan agureak—. Ez da erraza inguru honetan xakean dakien inor topatzea. Goazen, ba, lehenbaitlehen.

Xakea zoragarria zen, ordurarte ikusi ez eta aurrerantzean ere ikusi ez dudan modukoa. Harrizkoa zen, zalantza barik eskuz landua. Pieza guz-

tiek, baita peoi xumeetako bakoitzak ere, berezko nortasuna zeukaten, berezko bizia zerien. Gonbidatua nintzela eta pieza zuriak utzi zizkidan. Mugimendu bateko abantaila, beraz.

Aurrez aurre jezarri bezain laster konturatu nintzen joko hura apartekoa izango zela. Bapatean pisu haundi moduko bat sentitu nuen. Inguru osoa, gela, etxea, lorategia, mundua, itzali egin zitzaidan, jokoan trabarik ez egitea erabaki balute bezala. Agureak lasai zirudien baina begiei distira berezia zerien, katuei saguaren zain daudenean dariena bezalakoa. Sagua neu nintzela eman zidan.

-Beraz, gura duzunean—ahozkatu zuen hizki bakoitza nabarmenduz, esaldiarekin gozatuz. Huraxe izango zen jokoak iraun zuen artean entzun nion azken esaldia. Handik aurrera kantuan hasi zen, lehenengoz entzun nion soinu berberaz. Ahorik zabaltzen ez zuen arren lantzean behin hitzen bat edo beste elkarlotzen zirela iruditu zitzaidan. Berezia zen, benetan; burmuinaren barreneraino sartzen zitzaidan, logura eraginez, edo nekea, edo pisua, edo zer dakit nik. Soinu hura gogotik kanporatzeko indarra egin nuen, burubelarri jokoan murgiltzeko.

Erregearen peoia bi laukiz aurreratuz hasi nintzen. Hasiera ezaguna, ohizkoa. Nire gustokoa, ordea, eta joko hartan ez nuen ausardia larregirekin ihardun gura. Nahiago nuen lasai aritu, erdi aldea bete eta posizioak sendotu.

Hiruzpalau minutuz pentsatu ostean berak nire mugimendu berbera egin zuen. Jokaldi lojikoena, bestalde.

Ez dut atzera egin halako jokorik. Lehenengo mugimenduak egiteko ere, jokaldi xinpleenak burutzeko ere, mila hausnarketa egiten nituen, burutik ezin kendu nuen soinuarekin borrokan. Hasieran ordu erdi pasa zitekeen mugimendu bat egin aurretik, geroago ordu bete, eta orduak aurrerago. Artean lehenengo mugimenduak baino ez zirenean izerdi tantak sentitu nituen bekokitik bekainera eta handik matrailetatik behera bidea egiten.

Aurrez aurre neukan hura, ostera, lasai zegoen, etengabeko kantuan. Mugimendu bakoitza egiteko luze pentsatzen zuen baina egiten zuenean ezin hobea zen, borobila, nire jokaldi guztiak aurrez igarri eta nire piezak itotzeko. Maixua zen, zalantza barik.

Orduak joan ziren lehenengo peoia erori aurretik. Nik jan nuen eta peoi beltzak, gainontzekoen jokaldiak burutu ahal izateko hiltzeko jaio zenak, hasperen txiki bat egin zuela iruditu zitzaidan, heriotzaren beldur balitz bezala, jokoa lasterregi uztearen kexu balitz bezala.

Jokoak aurrera egin ahala pieza gehiago jausi ziren, peoiak batzuk, alfil bat eta zaldi bat ere bai. Guztiak, baina, hasperenez agurtzen zirela ematen zidan niri. Are gehiago, hasperena agurearen soinuari atxekitzen osatzeko. Berriro ere pentsamenduok uxatu nituen, jokoari lotzeko.

"Eta—pentsa liteke—bazkaltzeko, edo pixa egiteko ez zen jokorik eteten?" Ez ba. Oso noizbehinka, agurea altxatu eta mokadu hotzen bat edo ur edalontziren bat ekartzen zuen, eta gainontzeko premiarik ez nuen sentitu, hain zen itogarria jokoa.

Agureak joko hasieran bezain fresko segitzen zuen eta ni, ordea, urduritasunak janda, izerditan. sokaz lotzea lortu duten basazaldiaren sentsazio berberaz: behin eta berriro oldartu arren, alferreko ahalegina dela jakinez.

Biok ia pieza berdinak genituen—peoi bat gutxiago nik—baina halere agurearen mugimendu bakoitzak apurtxo bat gehiago itotzen ninduela sentitzen nuen.

Zuriak nituen arren defentsa jokoa zen nirea, erasokorra pieza beltzena: peoiak aurreratuta, zaldia nire defentsa hausteko prest, alfila nire erregearen diagonalean ... Ez nenbilen gustora, ez. Atera kontuak, berak endrokea egiteko zeukala, ni bi torreak mugimendu guran nenbilen.

Eta ustekabean miraria heldu zen: erregea eta erregina diagonal berbe-

rean ipini zituen. Begibistan neukana ia sinistu ezinik, joko osoko mugimendu bizkorrena egin nuen: alfila diagonal horretara eroan nuen, erregearen defentsan zegoen erregina mehatxatuz. Nik alfila zaindu barik neukan, eta berak tartean babes moduan ipintzeko piezarik ez zeukanez, alfila jatea baino ez zuen eduki, hurrengo jokaldian nik erregina ez jatekotan. Alfila jan zidan, beraz, baina horixe zen nik nahi nuena. Zaldia aurreratuz erregea eta erregina, biak batera, mehatxatu nituen. Erregina galduta zeukan.

- Xake!—ia oihukatu nuen, hurrengo jokaldietan zer egingo nuen guztiz ahaztuta. Erregea mugitu eta nik erregina jan nion; horixe zen une horretan balio zuen bakarra.

Jokaldi horrek guztiz alda erazi zuen jokoaren norabidea. Erregina alfil baten truke aldatu behar izan zuen, baina horretaz gain nire zaldia ezin hobeto kokatzeko parada eman zidan.

Agurea ez zen gehiegi larritu. Lehenago aurrera bezala orain atzera egiten zuen, soinua sortzeari laga barik, bere piezak eta posizioak jausten ikusten zituen artean.

Jokoak luze iraun zuen oriandino, eta hasperen gehiago entzun behar izan nituen. Orain nire egoera bestelakoa zen, ordea, eta lehen hainbesteko mina eragiten zidaten hasperenak ezberdin barneratzen zitzaizkidan; leunago, edo.

Azkenean "xake mate" esan ahal izan nuen, azkenean agurearen aurpegia aldatuko zelakoan. Berau, baina, irrifarrez altxatu eta zoriondu egin ninduen. "Jokalari bikaina zara"—esan zidan—Ez dago jende asko niri garaitu zaidanik esan ahal duenik. Baina amaitu da jokoa. Zure lagunengana itzultzeko garaia izango da, ezta?".

Nik ordurako guda, lagunak eta guztia ahaztuta neuzkan. Agurearen berba horiek, berriz, mundura erakarri ninduten. Jakina, non zeuden lagunak, non etxea? Guztiak jokoaren zirimolan ahaztu nituen.

-Baina zelan egingo dut fronte osoa zeharkatu eta gure aldera heltzeko?
- Ez dago arazorik—erantzun zidan hark—Nik bidea oso ondo ezagutzen dut. Iluntzen hasita dago eta gauez bide segurutik gidutuko zaitut.
Halexe egin genuen. Agurea aurrean eta ni ondorenean, lehenago itsututa zeharkatu nituen inguru berberak iragan genituen. Hiru orduz edo, ibili ginen gau beltzean, karlisten hotsik ere entzun barik.
Agureak betiko soinuari eusten zion, nire larridurarako.

- Heldu gara—esan zidan bapatean—Zuzen aurrera jarraituta, ehun metrotara daude zutarrak. Itxaron ezazu ni joan arte eta gero aurrera egin, baina ez ahaztu euskalduna zarela esatea! Eta honekin, agur esateko ordua heldu da. Ondo izan eta ikusi arte. -Eta horrelaxe galdu zen, niri "ikusi arte" xume bat esateko denbora justua emanez. Azkenean, beraren izena jakiterik ere ez nuen izan.

Agureak esan bezala, une batez itxaron eta aurrera egin nuen gero, ahots batek bidea moztu zidan arte.

- Nor dabil hor?
- Ez egin tiro!—erantzun nuen berehala—Luis Mari Zabala naiz, A konpainiakoa!
- Zatoz honantz kontuz eta eskuak goian dituzula.

Horrelaxe itzuli nintzen nire konpainiara, nire konpainiakideen artean agertu bainintzen. Laster agertu ziren Patxi eta Fernando ere, beste burkide batzurekin batera. Tenientea ere inguratu zen.
- Non demontre sartu zarete? Eta non daude Pelayo eta Joxemiel? Zuengatik arduratuta egon gara, bonbaketaren erdian harrapatuta....
—Karlistekin topo egin genuen eta granada batek Joxemiel hil zuen. Pelayo, berriz, ez dakit non dagoen baina hilda dagoela uste dut. Eztandaren ondoren itsututa noraezean ibili nintzen, agure batek topatu ninduen arte.

- Eta nola itzuli zara? Ez dirudi itsututa zaudenik—tenienteak.
- Agureak berak ekarri nau. Hurrengo egunean beraren etxean esnatu

nintzenean ikusmena berreskuratua nuen eta...
- Nola hurrengo egunean? Hiru ordu baino ez dituzu kanpoan eman, barren! -moztu zidan tenienteak.
- Ez, ez. Ezin liteke hori; gutxienez egun pare bat eman dut agure horren etxean.

- Baita zera ere! Ez etorri hona adar joka, mutiko. Orain dela ordu bete eskas itzali dira zuek eragindako kanoikadak.

Hala izan zen, antza. Nik behin eta berriro agurearen etxean gertatutakoa azaltzen ahalegindu nintzaien arren ez zidaten sinisten. Ezin sinistu, bestalde, benetan patruila hasi zenetik hiru ordu bete baino ez ziren joan eta. Nik xehetasun guztiak gogoratzen nituen, ordea, eta xake jokoaren jokaldi bakoitza kontatzen nien: "lehenengo erregearen peoia aurreratu nuen eta..." Alferriko azalpenak.

- Horiek guzti horiek ametsetan bizi izan dituzu, txotxo. Eztandak konorte barik laga zaitu eta ametsetan ihardun duzu. Argi dago.
- Zelan heldu naiz bueltan, orduan?—defendatzen nintzen.
- Joan ere egin zineten, ba. Itzultzea ez da hainbestekoa.-besteek.

Azkenean, ze erremedio, ontzat hartu nuen lagunen teoria. Nola izan zitekeen, osterantzean, hiru ordutan hainbeste gauza jazotzea.
Handik aurrera gertakizunak oldarrean etorri ziren eta egunerokoari erantzutea nahikoa neukan bestelako hausnarketei ekiteko: karlisten erasoa eta gure atzeratzea, etengabeko atzeratzea Santoñara heldu arte; zazpi urtetako gartzelaldia; herrira, etxera itzultzea; kalera ezkondu; seme-alabak.... Garbi esanda, guztiz ahaztu nuen gau hartan gertatutakoa...

Gaur arte.
Gaur, duela ordu bi eta piku, berriro entzun dut gau hartan entzun nuen soinu hura eta bapatean dena azaleratzerakoan argia piztu zait. Orain badakit Heriorekin egin nuena topo gau hartan, eta Herioren etxean xake jokoan ihardun nuena.

Baina badakit jakin, ez nintzaiona Heriori nagusitu; badakit jakin Heriok iruzur egin zidana, jokoan nagusitzen utzi zidana. Baina zelako ordaina halakoa! Orain badakit peoien, zaldien, dorreen hasperenak nire lagunenak zirela, Joxemirenak, Pelayorenak, Bizkargin hil zuten Fernando alaiarenak, beste hainbeste lagunenak,....

Bizitza maite dut, luze bizitzeak berau ondo ezagutzeko parada eman dit. Batzutan tristeago, pozago gehienetan, urte bakoitza, aste bakoitza xurgatu dut. Eta gehiago ere xurgatuko nuke.

Beharbada gaur gauean Heriok beste xake joko bat eskainiko dit, eta beharbada atzera iruzur egiteko prest egongo da, bizitzara buelta nadin.

Baina nik ezetz esango diot, ez nagoela hasperen horiek, nire seme-alabak izan daitezkeen hasperen horiek, berriro entzuteko prest.

Ezetz erantzungo diot, eta gaur loak hartzen nauenean begiak betirako itxiko zaizkit. Eta ez dut biharko argirik ikusiko.

Harriet Iragi Gurrutxaga
1977
Bilbo

2000 urtean atxilotu zuten. Egungo destinoa:
Kordobako Alcolea espetxea.

C.P. de Córdoba (Alcolea)
Ctra. Sevilla-Madrid, km. 391
Apdo. 479
14.007 Córdoba.

Bertso hauek Harrietek lagun bati bidalitako korrespondentzia intimoaren zati dira, eta guk, "lapurrok", ebatsi egin ditugu.

Gartzelako bertsoak

Borrokan bizi erabaki nun
batzuetan ezkutuan
atzerriaren kaleetatik
sentimenduen mutuan
guda sortuaz paradoxa den
bakearen helburuan
nireak diren guzti horiek
ez ikusteko izuan
orain gartzela barruan
gorrotoaren itsuan
zer garen ezin ahaztuan
egin beharrak buruan
beste horri bat itzuliko dut
biziaren liburuan.

Lehenego gutunetan hizkuntza arrotzaren inposaketa:
"Contesto con un par de versos, pues, yo también soy aficionado y principiante en el arte vasco de cantar lo hablado".

Zure bertsoek esnatu dute
nigan den bertsolaria
nolabait hasi, jakin ez eta
zuk jarriari abia
Urretxindorrak triskatutako
hego horietan haria
bizi artean Urretxin honek
jarri ezazu adia
hegodun edo hegorik gabe
osatuko du kabia.

Harrotasunaz zerade mintzo
bigarren bertso horretan
harrotasuna mantendua dut
momentu gogorrenetan
gai eder hontan buru-belarri
bertsoz ari geranetan
esan nahi nuke gure ohorez
etsai denaren penetan
tinko jarraitu dudala asmo
espainolaren ziegetan.

"Bueno, como ves, también contestaré a tus versos. En eso soy fanático así que te mandaré más cuando escribas (chantaje guarro para que vuelvas a escribir ja, ja...)".

1) Udazkenak dakarren
ostoen euria
zenbait berdetan dago
marroi ta horia
arimaren islada
ez den sargoria
kanpoan goxo eta
etxean ogia
borondatez zintzoa,
bihotza lodia

2) Kotileoan hasita
badut notizia
ez dut luzea izan
oraino bizia
nahiz eta hortik bazen
batzutan ixia
ezkonduko gerala
ni eta bitxia
emango al didazu
zeure eritzia.

3) Eguna falta zaigu
tokia zein ote
sinatzeko paperak
garela bikote
ni bakarrik naiteke
nirearen dote
errekurtsotan ere
gutxi baten tope
amodioa itsua
dugula diote.

4) Altarerik gabeko
gartzela ezkontza
lekuko izango da
gauerdiko ontza
maitasuna ez dedin
laburrean trontza
maitasuna dadila
elkartasun funtsa
gazte heldu ote zait
zaharren gizontza.

5) Batzuk "gaixo" dabiltza
pilulak hartzeko
patrikan gorde eta
besteri saltzeko.
Esaidazu ezbaden
gauza harritzeko
gure idei guztien
eraberritzeko
"gaixo" ibili behar
ongi bizitzeko.

6) Saltzailea badago
eroslea esklabu
ezer ez duelako
eskatzeko badu
jaten ezer gutxi du,
gutxiago afaldu
pilulak eta drogak
dezake apaldu
ezin bizirik dela,
izatea galdu.

7) Gartzelako kontuak
barrerako sarri
horretarako ez da
hoberik igarri
nireakin bazera
oraindik egarri
hurrengoekin zuhur
geratzeko harri
kontatzeko direnak
bertsotan ekarri.

8) Oraino hor zabiltza
"ja"ri ezin eutsiz
hemengo kontuetan
nireak berretsiz
lortzeko ba al dugu
aurretikan etsiz
atea hasieratik
parez pare itxiz
edo gauzak aztertuz
beretara jeitsiz.

9) Ibiliko zerade
belarriak ubel
berotzen naiz askotan
bizitzeko epel
argia gozatzen dut
ilargitan gaubel
ez nauzu ikusiko
irrietan goibel
bota badizut txapa
barkaidazu motel!

Gutuna eguneroko kontuez:

1) Bada garaia ikus dezagun
ohiu egiten mutua
hautsi dezagun gai honek duen
bitxitasun ingurua
bada altxor bat, bada jakin bat
gure baitan izkutua
esklabu denak altza dezala
behin betirako burua.

2) Etsaiak ia egin du baina
amodioak gaitu hilko
gutxi ta raka! odolustutzen
gaituela lehenbiziko
ihes egiten ezta saiatu
ez dizu eta utziko
libre gerala diogu baina
esklabu gera betiko

3) Maite da neska, familia ta
auzoa, hortaz herria
hori delako dudarik gabe
bakoitzaren aberria
izan ez dedin gaur bezain latza
gure etorkizun berria
aurre egin digun etsaiarentzat
prest daukagu hilerria.

4) Maitasunari egin diogu
bertso batzuren opari
badira txarrak baita hobeak
baina guztieri adi
bota azken hau herri honetan
osotzen gaituenari
independetzi, sozialismoa
gora gu eta euskadi!

"Hogei erantzun hogei bertsori" gutunetik:

Eboluzio, inboluzio
garenaren poluzio
hutsetatikan ikasten ez dun
giza degenerazio
honetatikan aterako du
egiteko negozio
nire egona ez dut biziko
honelakoen sozio.

Hemen garela lana badegu,
etsaiari aurre gogor!
Guztiak baten pausorik pauso
batzuk hosto, batzuk enbor
hasitakoa amaitutzea
herriari diogu zor
hemen norbera berean dugu
promesa horien gotor.

Maitasuna eta herria:

1) Ikatzak baino zulatuko du
errezago dinamitak
presondegiko horma zabalak
ta zaintzen duten garitak.

2) Egaña degu bertsolaritza
modernoaren haritza
izan dadila bere bizitza
ahazten ez degun hitza.

3) Jon Maia bera omen dezute
taldean hor jo ta fuego
hala joan zen Donostiraino
gola sartzen "delantero".

4) Nik golak gutxi sartzen nituen
defentsa nintzan lehenengo
euskal defentsa hartuagatik
kartzela batean nago.

Gartzelako ariketak, bertsoaren bukaera kanpotik bidalita osatutako bertsoak:

1) Zeru azpian jotzen badigu
indar osoz eguzkiak
ez dira errez azaleratzen
gure izanen eztiak
zein errez diren ikustekoak
gizon salduen uzkiak
gu behintzat ondo konpontzen gera
hor konpon beste guztiak.

2) Esan didazu lana dezula
kotxe eta hainbat luxu
ni ligatzeko asmoarekin
erabiliak dituzu
hurbildu zaitez ene polita
hurbildu emanez musu
dirua ez zait eni ajolik
hainbeste maite banauzu.

3) Inoiz ez diat ezer egin da
hau inork ez dit eskertu
ezkondu ere egin banintzan
emazteak nau asetu
ikasteko're gogorik ez nun
jada ez bahaiz jabetu
lanaren berri jakin nahi dunak
ez behintzat niri galdetu.

4) Bota dituzte goitikan behera
ez da geratu laginik
bi diskoteka horietako
leherkariak ipinirik
ezagun gabe aitortuko dut
ez dudala hartu minik
ustez aurrera goazenontzat
han ez dago zer eginik.

5) Gero ta hiri handiagoak
grisaren luze itzela
hazi gaituen herri amakin
lur harremanik ez dela
egin zazue zerbait gazteak
egin zazue bestela
ikusten baitut malko artean
begira ari naizela
euskal baserri maitagarriak
galtzera dihoazela.

6) Milaka urte iraun badu
zaharrengandik gaztera
erliki baten jabe gerala
konturatuko al gera
orain bostehun, mila, bost mila,
urte atzera zen bera
hitzegiten eta hemendik
garrasian diot zera
munduan azken egunak arte
entzun dadila euskera.

Gabon koplei erantzuna:

Bertso baten hasieran Harrietek "Larrua jo ta, kantatu jota!/bertsoa parea bota/maitasunaren itsasoetan/ plazerrarekin itota" diosku. Espainiar estatuko zeldetatik heldu zaigun deiadarra, momentu latzenetan ere umorea, maitasuna, lagunak, herria eta borroka duin baten aldeko deiadarra. Askatasunaren deiadarra bertsoaren neurri estuetan preso. Horixe da bere xumetasunean esku artean duzuna, izango dira gehiago hurrengoetan, baina bien bitartean besarkada bat eta azken bertso hau.

Hitzak ez dira erabiltzeko
sekulan ez behar beste
esatekoak ditugunaren
arimaren interprete
kalean ez nun denborarikan
baina orain baliteke
gizonak badu betebeharrez
dituen ametsak bete
lehen bertsolari izan nahi nuen
ta orain izan naiteke.



Jokin Uriain Larrañaga
1959
Mendaro

1986an atxilotu zuten.
Hainbat liburu argitaratu ditu: Izaina (1990), Adlotse (1992), Gatibu jaio nintzen (2000), Ixilik doaz urak (2002).

C. P. La Moraleja
34210 Dueñas
Palencia

AL J.V.P. Nº 2 DE CASTILLA-LEÓN (BURGOS)

Jokin Urain Larrañaga, preso político vasco ilegalmente dispersado de su lugar de origen, y recluso en la cárcel La Moraleja, ante V.I. comparezco y como mejor proceda en Derecho, **DIGO:**

Que por medio del presente escrito vengo a interponer QUEJA contra la Dirección de esta prisión de La Moraleja, y en concreto contra la Diligencia de Notificación de fecha 11 de febrero de 2002, por la que se me retiene el nº 7 de la revista KALE GORRIA, y ello en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.- Que en la comunicación del día 11 de febrero la familia me trajo la revista KALE GORRIA, que se vende -al que le interese comprarla y pague por ella, tal como se acostumbra hacer en casos semejantes de transacción- en establecimientos públicos.

SEGUNDO.- Que para retener y no entregarme dicha revista este C.P. alega las omnipresentes Razones de Seguridad, sin especificar ni concretar en absoluto cuáles son esas razones, ni cuáles las seguridades a guardar, ni mucho menos facilita -aunque fuese a modo de ejemplo- una relación de los enormes peligros que acarrearía la lectura de dicha revista.

El hecho de que una revista que tiene su número de depósito legal y se venda al público en la calle, se retenga, sin embargo, a la entrada de una prisión para evitar que llegue a las manos de un preso, sólo puede tener -a primera vista- un motivo, y éste es el de evitar que el preso -y sólo el preso- se entere de las informaciones que facilita.

Si el Director ha decidido retener esa revista, es sin duda porque contiene informaciones interesantes y entiende, al parecer, que es intere-

sante que yo no la lea, y sus intereses tendrá, digo yo, para entenderlo así.

Pero no parece muy coherente dificultar al preso la lectura de dicha revista, siendo que fuera de los muros de la cárcel, si a alguien le interesa la información que facilita, sencillamente la adquirirá en un quiosco como hemos apuntado antes, y se dedicara a leerla. No es extraño que luego vengan diciendo que los presos vivimos fuera de la realidad y que no nos enteramos de lo que pasa en la calle, si es el mismo responsable de la prisión el que nos dificulta la lectura de las noticias.

Tal vez lo de las Razones de Seguridad se refiera a lo que es o no políticamente correcto desde el punto de vista establecido. Es decir, lo establecido intramuros, que sería algo así como la pretensión de levantar, además de los de cemento, hierro y alambre, un muro "talibánico", si se le permite al preso la expresión.

O tal vez la medida que adopta el Director de esta cárcel, lo de retener la revista KALE GORRIA con la excusa de las Razones de Seguridad, sea tan sólo para ganar tiempo y poder así leerlo él mismo por el interés y la curiosidad que tiene por enterarse de las informaciones que El Gran Hermano trata de ocultarnos.

Por todo lo dicho, SOLICITO a ese Juzgado que inste al Director de esta cárcel a que, una vez haya leído el nº7 de la revista KALE GORRIA, me la pase.

Lo que es de justicia en La Moraleja a 19 de febrero de 2002.

Fdo. : Jokin Urain Larrañaga

AL J.V.P. Nº 2 DE CASTILLA-LEÓN (BURGOS)

Jon Koldo Aparicio Benito, Jokin Urain Larrañaga, Karlos Ezkurra Leonet y Angel Figueroa Fernandez todos ellos presos políticos vascos ilegalmente dispersados de su lugar de origen, y reclusos en la cárcel La Moraleja, ante V.I. comparecen y como mejor proceda en Derecho,

DICEN:

Que hemos recibido Auto de ese juzgado de fecha 21/12/2000, referente al Asunto 7142/00 por el que se desestima nuestra Queja relacionada con el funcionamiento de la calefacción, por lo que en el plazo de los tres días hábiles venimos a formular RECURSO DE REFORMA ante ese J.V.P., y ello en base a las siguientes

ALEGACIONES:

PRIMERA.- Que todo se debe a un malentendido.

SEGUNDA.- Que efectivamente la calefacción, el llamado calefactor, se encuentra funcionando con un horario amplio, y buena muestra de ello es el ruido que hace, un ruido de soplo continuo, como de un viento que sopla sin molestas intermitencias, sin esos embarazosos empujones que suelen desbaratar paraguas y se llevan los sombreros; un soplo de viento gozoso en una palabra, sin bruscos altibajos, aunque sonoro. Es, pues, un ruido al que el oído se va acostumbrando a falta de otro remedio y que incluso viene bien para amortiguar los ruidos de las celdas contiguas, los de los aparatos de radio o televisor.

TERCERA.- Que la cuestión consiste en dilucidar cuál es la misión, además de amortiguar los ruidos de las celdas contiguas, de dicha calefacción. En las horas en que nos encontramos en las celdas y el antedicho ruido de viento nos muestra que algo funciona, en realidad hace una

temperatura ambiente fresca, tendiendo no al calor sino a lo otro, como a frío. Entonces, parece ser que la misión principal de la calefacción es mantener ese soplar continuo con ese frescor también ininterrumpido y que poco a poco va calando el cuerpo, envolviéndolo en frescor, y nosotros estábamos convencidos de que la calefacción era para calentar un poco la temperatura ambiente de los interiores, de las celdas entre otros sitios, para que en el tiempo que permanecemos en ellas no nos encontremos con este frescor bien deseable en pleno verano, pero no tanto cuando se ve nevar o helar, como acostumbra a hacerlo en los meses últimos y primeros de cada año.

Aun así, es bien cierto que la calefacción funciona, como se ha dicho, y es algo que no se debe discutir por ser verdad constatable.

Y de ahí el malentendido, pues nos encontramos en los meses que se dicen de invierno, y creemos que esta calefacción es de verano, que en realidad es para refrescar un poco los calurosos días y las noches de verano, esos días en los que la celda se hace sofocante.

Por todo lo dicho SOLICITAMOS que mediante este escrito tenga por presentado Recurso de Reforma y que V.I. inste al Director de este C.P. a que nos ponga calefacción de invierno.

Lo que es de justicia que pedimos en La Moraleja a 31 de diciembre de 2000.

Fdo.: Angel Figueroa Fernandez
Fdo.: Karlos Ezkurra Leonet
Fdo.: Jokin Urain Larrañaga
Fdo.: Jon Koldo Aparicio Benito

AL J.V.P. Nº 2 DE CASTILLA-LEÓN (BURGOS)

Jokin Urain Larrañaga, preso político vasco ilegalmente dispersado de su lugar de origen, y recluso en la cárcel La Moraleja, ante V.I. comparezco y como mejor proceda en Derecho,

DIGO:

Que he recibido Auto de ese juzgado de fecha 21/02/2001, referente al Asunto 304/01, en que se dice haber recabado informes de este C.P. de Dueñas, sin que se le haya dado traslado a esta parte de esos informes. Ese Auto no hace ninguna mención explícita y concreta al motivo de mi Queja, pero sí lo desestima diciendo que de mi escrito no se desprende queja alguna frente al funcionamiento de la administración penitenciaria, por lo que muy bien podríamos decir que de ese Auto no se desprende ninguna desestimación, y hacer la siguiente

ALEGACIÓN:

ÚNICA.- Que "con la iglesia hemos dado, Sancho"

Por todo lo dicho, y sobre todo por lo no dicho, SOLICITO a V.I. que mediante este escrito tenga por presentado Recurso de Reforma y al menos dé traslado a esta parte del informe del C.P.

Lo que es de justicia que pido en La Moraleja a 01 de marzo de 2001.

Fdo.: Jokin Urain Larrañaga

Xilingo deitzen diogu…

Xilingo deitzen diogu. Egongelan nago goizeko zortzi eta erdiak aldean, zutabearen kontra, telebistako berriei begira. Txilen hauteskundeak izan dira eta emaitzen berri ematen ari da; Lagos suertatu da lehendakaritzarako aukeratua. Ondoan jartzen zait Xilingo, telebistari begira bera ere, irrifarrez, pozik. "Hori bai gizona" esaten dit, "ni armadan soldaduzka egiten ari nintzela gure itsasontziko kalabozoetan zegoen hori preso, atxilo. Irmoa gizona. Nik ikusi izan dut nola botatzen zituzten itsasora Pinocheten Estatu kolpearen ondoren atxilotu eta torturatzen zituztenak"

Orain hemen, moduloan, egongelako garbiketaz arduratzen da, tartean tartean erratza pasatuz, fregatuz. Eskuin aldera okertuta dauka soina, bizkar hezurreko erasan edo akatsen batengatik; ez dauka itxura aidosoarik. Erraz erretxintzen da gainerako presoekin, edozein huskeriarengatik; militarren harropuzkeriatik zerbait geratzen zaio oraindik. Moduloko zutabeetan orriak itsatsi ditu, "euki ezazu garbi moduloa" diotenak. Hotzari eutsi ezinik dabil negu gorrian, bere txamarra beltza okozperaino lotuta.

Venezuelarra ei da. Duela egun gutxi agertu zen modulora; gizon sendoa da, itxurosoa, baina badu zerbait begirada horretan abegitsua ez dena. Tratu oneko gizona dirudi hizketan hasten denean. Ilea urdindua du, zaharra ez den arren; bere boltsa aldean, gosaldu ondoren eskolara joaten da. Han, paper eta karpeta mahai gainera aterata, eskutitz eta idazki moduak irakurtzen eta gainbegiratzen ari dela ikusten dut.

Alboko neure txokoan esertzen naiz, beste mahai batekin, eskolan; jende gehiago ere badago. Ipotxarekin berriketan ari da venezuelarra. Bera faxista dela dio venezuelarrak, eta hau edo hori defendatzea eta ez dakit zelako teoriak defendatzen dituen bere balizko faxismo horretatik. Alemaniarra ei zen bere aita, Hitlerren alde gerra egina, ofiziala izana. Gerra galtzean ihes egin zuen, nonbait, Venezuelara. Beronen emaztea, beltxarana izaki, ez ei zen egundo aitaginarrebaren etxean sartu.

Neure liburuari begira, ezin diot antzeman aita harekiko zer sentimendurekin ari zaion hizketan ipotxari; minez ari zaio agian, baina kontu mingotsak hain erraz jaulkitzea bitxi egiten zait. Bere aita, jarraitzen dio, New Yorkera joaten omen zen urtean behin, eta, hamar mila dólar ordainduz, beltzen auzo txiroetara joaten omen zen, beltzen bat ehizatzera, akatzera alegia.

Egunak eman ditu presoak telefonoz deitzen zebilen jendeari begira. Atearen ostera norbait igarotzen zen aldi bakoitzean telefonoa nola hartzen zuten, zenbakiak zelan markatzen zituzten eta harmailetan eserita hitzegiten nola egoten ziren begiratzen zien preso etorri berriak beste presoei.

Egun gutxiren buruan bera sartu zen telefonoa zegoen lekura, eta, telefonoa eskuan hartu ondoren, zenbakiren batzuk markatzeko itxurak egiten aritu zen. Harmailetan eseri zen gero, telefonoa belarrian zuela, eta hantxe egon zen hogei minutu inguru, gainerakoak egoten ziren bezalaxe, baina inorekin hitz egin gabe.

Aurrerantzean ere berdin egiten jarraitzen zuen, errituala pausuz pausu errepikatuz, telefonoa hartu, zenbaki mordoxka bat seinalatu, eta harmailetan eseri gero, eta hantxe ordu laurden edo hogei minutu egoteko ohitura hartu zuen, besteak ikusten zituen bezalaxe, hariaren bestaldetik norbaitek zerbait esan zain.

Klandestinoa deitzen diogu eta Kitxuren laguna da. Ordenagailutik ateratako mendi baten argazkia ikusi dit eta mendi hori ea Machu Pichu al den galdetzen dit, eta baietz esaten diot, mendia Machu Pichu dela eta ondoan ikusten den herria Bilbo. "Bai?" galdetzen dit serio-serio. Gero ohartzen da hori ezin litekeela izan, eta hasten zait esplikatzen Machu Pichu eraikitzeko harriak behetik eramaten zituztela hara gora, "porque allí arriba no crecen esas piedras tan grandes".

zuentzako akaboa.

3.
Neketsuetan ohi da azaltzen
norberaren itzelena,
pentsatuz –noizbait lortuko dugu
aske-nahirik maiteena-,
Edonork ez du heriotzari
aurre e(g)iteko kemena.
Elkarren bultzaz sendo goratu
guretarik hoberena.

4.
Heriotza dut aitatu, baina
ez neba-arrebik miñenak,
Patxi, Iñaki ta Jokin legez
brodaturiko izenak,
handiari kosk egiten ausartu
ziren gudari gardenak,
historiaz gaindi gure egian
betiko bizi direnak.

Hamarreko handia.
Abesteko, adibidez, "Txepetxa"ren bertso-doinua erabili.

Errieta (norberak jakin nori)

Euskara gure hizkuntza dela
esaten dugu askotan,
baina benetan ez du ematen
hori zaigunik inporta
erdara hutsez aritzekotan
...lanean gaudelako da,
eta jaietan egonez gero?
...orduan aski da jota!
Noiz ote gara hasiko zaintzen
geurea omen den errota?

Zortziko Nagusia.
Abesteko Txoriak eta txoriburuak edota Pello Errota bertso doinuak erabili

Lehenean bezala

1.
Agur Iñaki, Patxi ta Jokin,
aurten ere kartzelatik,
ospa eiteko abilezia
ez dudalako oraindik.
Zuen erako gizon-emazte
tankerarik al daukat nik?
Noski! nik neuk be sinistuz gero
aske bizi ahal denik.

2.
Hamar urteko ibilbidea
akatu zintuztenetik,
atzo izana dirudi, baina
zama astun da gainetik,
oraino ez baitu Euskal Herriak
jotzen berezko bidetik,
frantses-español morrontzapean
lotuta jarraitu baizik.

3.
Aurrera! dio barne indarrak,
adimenak ta bihotzak,
ekin ta ekin mozten direla
kateak eta izotzak!
Ez gara jauntxo batzuen morroi
edo menperatu motzak,
etsi gabeko jarreraz, beste
itxura dauka laiotzak.

Zortziko Txikia.
Abesteko, esate baterako, Markesaren alaba bertso-doinua erabili

Itsaso

Ilobari bertsoa
idaztera noa,
albo batera utziz
hotza ta beroa.
Antxintxiketan dabil
egunerokoa,
ta egunero dugu
gorpuzten geroa.

Joseba Garmendia Albarracin
1968
Urretxu

Aurtengo martxoan Espainiako Polizi Nazionalak atxilotu zuen Batasuna erakunde politikoaren kidea zelakoaren akusaziopean. Egun, Aranjuez-ko espetxean dago.

C.P. Madrid VI
Ctra. N -400, km 28
28.300 Aranjuez
Madrid

Aurrez-aurreko sasi-poemak

Amaia eta Unairentzat

Gauminean isiltasunak ez du arnasketa gaubeilatzen.
Kilkerrak esna, patioaren azalera miatzen dabiltza
amesgaiztoak ezarritako patuari ihes-zuloa aurkitu nahian.
Patioaren zurruntasun trinkoa kilikatzen dute
zirrikiturik zabalduko ote dien.

Ilargiaren estainuzko zuritasunari abesten diote
urruneratuko dituen haize-bolada ufa diezaion eskez.
Akorde metalikoek ordea,
alanbrearen arantzak zorrotzago teinkatzea baino lortu ez.
Hesietako fokuek lepoak luzatzen dituzte hobeki zelatatzearren.

Errekuentoan
mirilian begi bik
goiztiria argitzen digu.
Atearen mekanismo automatikoaz
ireki zaigu
egun berri
planifikatua.

Kabietako enarek filosofatzen dute
zein arrazoi ezkutu bitarte,
luzera murritzeko pentagramak errepasatzen dituzten
presoen ibilerak diren
horren armoniarik gabe.

Eta aldiz,
zure gutuna eskuan laztantzen duenak,
patioaren ekialdetik mendebalderantz
irriño hain irrifartsuak marraztu ahal izateko
lerroetan gordetako ze motako sentimenduak
miazka ditzaken
galdetzen diote alboan paseeran dabilkion baloiari.
Jakinminaren irrikaz
enaren txitoa kabitik erori da.

Begirada arrotzen bortxaz forjaturiko eleek
zementuzko baratza goldatzen darraite, hala ere.

Mairuak otoitza eten,
hilabatean behin
ezpainak topatu direneko.

Astean hamar minutuko bi solasaldi telefoniko.

Ahoskatze xamurraz xuxurlaturiko esaldi eztienak,
esaldi limurtzaileenak,
funtzionario zein ijitu pairugabeen imintzio asaldariei
itzuliriko mespretxuzko soaldi ziztatzaileenekin
uztartzeko trebetasuna albait lasterren ikasteko.

Lokutorioko kristalean ez errebotatzeko
ninien dizdirak gero eta ozenago.

Urdailean epeka kotizatzen duen
harreman diskontinuo jardunaldi partzialeko.

Besarkaden labeetan tenplaturiko eleek
zementuzko soroari arnasa berritzen darraiote, hala eta guztiz ere.

Mairuaren ahurraz eneratxo sostengatua
esku amultsuetan datza. Ez zaitezte kezka.
Laster airatuko da eta.

Agian eraman ere,
eramango baitu mairua bera
misioaren arrakastarako.

Gainontzekoa, gure kontu.

Bihar patioa pago-hostoz beteta
iratzarriko da.

Eta euria ariko du.

Idoia Lopez Riaño
1964
Orereta

1994an atxilotu zuten Frantzian. 2001ean estraditatu zuten, eta gaur egun Brievako espetxean dago.

C.P. Avila II
Apdo. 206
05.149 Brieva
Avila

Oharra:
Testu hau filmaren OFFeko ahotsa da. Filmean 6 ziega agertzen dira, eta bakoitzari atal bat dagokio. Lehenengo eta 6. ziegan agertzen den emakume presoa berdina da. Besteetan, hiru emakume presoak agertzen dira, banaka, bakoitza "bere" ziegan. 5.ean, amama bat agertzen da, eta berori da filmean indar handiagorik daukana.

1. ZIEGA

Giltzaperatzea

Kanpoan, eguraldi ona laster iritsiko da. Euriaren ostean bezala, ezta? Eta ni hemen, giltzaperaturik, zenbat urtaro gehiagotan oraindik?... Kaiola honen barrendik, barruti honetatik edo beste batetik, hemendik ala handik, haize, egun, argi, maitasun faltan, eskutitzetan baino iristen ez direnak. Ezin diot kaiolaturik dauden animaliengan pentsatzeari utzi... eta beraiek lez burua altxatu, eta garrasi egiteko grina izaten dut, nire kaiolan, zuhaitz berdeen, mendien, Askatasunaren usaina sentitzen dudanean.

Espetxeko zerua zeru monotonoa da. Hormen ondorioz beti ere grisa, beti ere lanbro hau, gure bekokietan –patioan gabiltzanean-, ur tanta txikiak urtzen dituena. Zein hutsune luzeak... etengabeak eta goibelak... Ezin dut inguratzen nauten harresi hauen altuera gainditu; azken gauotan amesgaiztoak izan ditut, non espetxeak, berriro ere, amesten ditudan. Espetxe ilunak, irteera gabekoak, goruntz zein beheruntz doazen eskailerekin, amaierarik gabe.

Baina nola ez sentitu, loratzen ari zen eta itzalera sartzeko, zoko antzu eta bakarti batean, bere lurretik erauzi duten zuhaitz baten gisa? Zoko honetatik nire adarrak zabaltzen ditut, oraindik ere loraturik, eskuraezin eta ausente diren izpietarantz. Hemen giltzaperatu banaute, ahul nadik izan da, astiro-astiro hiltzeko, gaztaro bete-betean zahar nadin. Bakardadera zigortu naute, denbora igarotzen delarik berarekin gauza eta lagun anitz eramanez.

Nire loreak, egunetik egunera, distirarik gabe, argirik gabe, maitasunik gabe, isiltasunez eroriko dira... baina nik urradura bakoitza sentituko dut.

2. ZIEGA

Edozein egun

Ozta-ozta nabil. Herrestan nire oinak, nire gorputza, baita kateak ere. Kateak. Espetxeak –iluntasunezko etxe hauek- ezagutzen ez dituztenentzat ikustezinak diren kateak. Bai, nolabait bizitzak berriro ere bere magalean babes ditzan itxaroten dauden mamuak bezala gabiltza, zin, existentziaren trenean berriz ere eseri ahal izateko zain , baina aldi honetan ibilbidearen norantzan eseriz. Zeren eta hemen, kutsu amaigabe baten zaporea duen itxarote honetan zokoratuta, bizitza igaro eta abiada handian ihes egiten dizula ikusten baituzu. Kanpoko bizitza, BIZITZA, horixe, gaiztasunez beterik egon arren hainbeste gauza da...! Baina hemen... ailegatzen ikusi aurretik, dagoeneko abiatua da. Betiereko gabezian bizitzen... Infernurik badago, honen antzeko behar du izan.

Leihora hurbildu naiz, beharturik –komunera joateko pasabide bakarra baita- eta kanpora begiratu dut. "Kanpoa", barruko patio txiki bat da, horma bat, burdin sareak... Bele bat bere hegoak apaintzen ari da, arratsaldean zehar etengabe ari duen euri xehearen azpian. Hotz da, eta hodei ilunek, baxuek, giroa iluntzen dute. Zenbait leihotan argia dago. "Bokia" ate aurreetatik pasatzetik dator, bere txanda egiten ari da, kontrolatzen, ateko "judas"etik begiratzen du –kilk-klak-. Irratiak, arretarik gabe entzuten ditudan musika-notak hedatzen jarraitzen du. Haizea altxatu egin da.

Nere leiho gainean, burdin sareek, kutxila txiki zorroztuez josiak, noizbait hauek zeharkatzea bururatuko balitzait, une txarrak igaroko nituzkeela gogorarazten didate.

Helikopteroen aurkako kableengatik moztutako zeruak bere kolorea aldatzen du. Beleak begiratzen nau. Edo hala dirudi. Aharrausi egiten dut. Oraindik ez dut "janari" gisa ematen diguten pentsua liseritu, eta dagoeneko badira hiru ordu.

Labar ertzean paseatzeko arratsalde polita da, haizea aurpegian eta itsasoko zapore gazia ezpainetan.

Bai, berriro ere amesten... eta nire pentsamenduak irakurri ahal izango balituzte bezala, espetxea inguratzen duen harresia argitzen duten erreflektoreak piztu dituzte. Gaua laster helduko da. Hilabeteak dira izarrak ikusten ez ditudala. Erreflektoreen argia indartsuegia da. Agian... lurrean etzango banintz, baldosa gainean, eta nere aurpegia ziega honetako paretari itsatsiko banio, justu leihoaren azpian, apika, hainbeste amestarazten gaituzten puntu distiratsu horietako batzuk ikusi ahal izango nituzke...

Baina leiho gainean ezarritako burdin sareak ahantzi ditut... Diztira egiten dutenak, ez dira izarrak... kutxila zorrotzak baizik.

3. ZIEGA

Bakardadea

Nola egon daiteke gertu urrun daudenengandik?... Ez dago inposatutako distantzia baino beldurgarriagorik.

Ziega honetako bakardadeak gehiegi samintzen nau.

Denbora, ihes egingo balit bezala igarotzen da, eta inguratzen nauen bakardade honek, horma honek, kanpotik itxitako ate honek, maite dudan guztiaren hutsune fisiko eta materialak, zorroztasunez min egiten dit. Halere, dena bizirik eta presente dago nire bihotz eta gogoan.

Batzuetan, beste presoen garrasiak isiltzen direnean, etengabe ernegatu eta erasotzen digun unibertso ozen honetan ate edo hormen kontrako kolpeak hedatzen ez direnean – hainbat irudik ehundaka begirada telebistako pantailara lotzen dituelako, edo gau horretan besoetako zainak inork ebaki ez dituelako –une horietan bizirik lurperatua izan naizela iruditzen zait.

Horma hauek gezurrezko ispiluak bezalakoak dira: alde batetik, ispilua da, islada, eta bestaldetik, beira bat, besterik ez. Ispiluaren aldea hemen da, non ez dudan nire islada baino besterik ikusi ahal... Nire irudia... baina beste aldean gertatzen den ezer.

"Hara! Su artifizialak ote?..."

4. ZIEGA

Gutunak

Gutunik ez... eta une hauetan taupadarik ez du nere bihotzak.

Ulertarazi nahi dizuet, sentiarazi..., gutunen gabezian sentitzen dugun babesgabetasun zirrara –idazten ez duzuenean, alegia- eta hein berean espetxeak deuseztatu nahi dituen loturak gure ezintasunaren aurrean desegiten direla.

Atsegingo nuke ulertuko bazenute, zuentzat paper zati batean idatzitako zenbait esaldi-borro dena, guretzat iluntasun honetan argi-izpi bat dela. Zenbait esaldi, zenbait fereka, zenbait haize-bolada, kanpotik baino iritsi ezin direnak. Gure aurpegiak ikusiko bazenituzte kartazal zuri horiek iristen direnean...! Morala kargatze hau, eta ongi egotea, bakarrik ez egotearen zentzazioa, zuei ongi-etorria emateko eta harrera egiteko bihotza zabal-zabalik, gu bisitatzera etorriko bazinate bezala...; ziega hauek bat-batean jendez beteko balira bezala, norberak hainbeste maite duen jende multzotxoaz.

5. ZIEGA

Bisita

Bai... espetxea halaxe da: ausentzia, urruntasuna, ezintasuna, gabezia, atsekabea.

Kanpoko bizitzatik baztertzen zaituen tunel bat, bat-batean begiak estaliko balizkizuete bezala, eskuak zein oinak lotu eta ahotsa –irrati bat itzaltzen den moduan- isilduko balizuete bezala. Zer bilakatzen da norbera

une horietan? Nor edo zer bilaka zaitezke, haize, zuhaitz, haurren irriak kentzen dizkizutenean? Nor edo zer, beste mundu etsai eta hotz batean uzten zaituztenean, maite dituzunen begiradak hilean minutu batzuk besterik onartuak ez daudenean; presentzia hori hain sakonki arnastearen grina izaten dugun arren apur bat arnasestutzen garen minutu horietan... gurekin geratzearen nahiaz bisita-denbora agortzen denean, gupidagabe, berriro begiak estaltzen dizkigutelarik.

Putzu baten sakonetik goialdera begiratzen duzunean bezala da, zerurantz begiak, argirantz... eta hor, iluntasunean, itxaroten duzu.

Itxaron... Itxaron... Itxaron beti.

Itxaron... Bisita bat... Gutun bat...

Gauean begiak nire argazkietan gerarazten ditudanean, negar batean lehertzen naiz, arnasik gabe, eta nire malkoek sortutako lanbro horretan, oso ondo ezagutzen ditudan ahotsak entzuten ditut: "ama, amatxi, eutsi, hemen gaude, gogoan zaitugu..." eta hainbeste indar ematen didaten hitz hauekin, zenbait orduz loak hartzen nau. Gero, amesgaiztoa itzultzen da.

Zazpi urte dagoeneko... Zazpi urteko bereizketa eta gehitzen zaion egun bakoitza urradura berri bat da. Hain bisita gutxi dudan... azkena duela hainbeste... Nire alaba nire besoetara jaurti zen malkoetan: "ama, ene hirugarren haurra erditzeaz naiz eta zu ez zaude nirekin". Bere ondoan, nire iloba txikia zegoen, enetxoa! Muxu bat emateko makurtu naiz... Berak zeharka begiratu eta "kaixo, anderea" esan dit... Kaixo "anderea"... Nire amatxi-odola tinta bilakatu zait.

Kaixo "anderea"... kaixo "anderea"...

6. ZIEGA

Eta bihar...?

Naizenaren erdia kendu didate hemen giltzaperatu nautenek eta zulo honetan lurperatu dute, ni kanpoan ere bizi bainintzen, basoetan, zeruan eta espazioan... maite ditudanen begiradetan, nire txoko hartan gertatzen den guzti horretan...

Bai, badira honelako egunak, non nere arimak ia lurrari jotzen hegan egiten duen. Baina bizirik dirau beti, eta nik gogoz eusten diot, beste batzuk nigatik gogoz eusten baitiote, eta besteengatik eusten diot, beraiek ere euts diezaioten.

Ez dute inoiz ez nire maitatzeko zein borrokatzeko ahalmena giltzaperatuko eta bakarrik lagundurik, ahazturik edo beti gogoan izanik ere, ez dute lortuko.

Nire loreak banan-bana eroriko dira, apika birrinduko dizkidate... baina nik nire baitan milaka ale gordetzen ditut, negu gorri hau amai dadin zain daudenak; hain amestua den udaberria guztiengana hel dadin borrokatzen dutenak.

Zorionez, izpi distiratsuak iristen dira, maitasunez, adiskidetasunez, elkartasunez beteriko kartazal horietan...

Nire loreak eroriko dira, baina ni, zuhaitza, beti bizirik izango naiz.

Piston Turbinaga

Iheslaria

Egoera trinko honetan
bizi gara urte luzez,

ziren asko jada ez dira
gure artean egonen.

Baina ikasia dugu,
irakatsitako guztia
bihotzean gordetzen dugu.

Ez, ez dugu nahi
eskutik eramatea.

Nagusi egin gara
minarekin batera.

Garaia da,
heldu da,
azkenean,
egin dezagun bidea.

—
Askotan pentsatzen dut hau ez dela egokiena.

Askotan pentsatzen dut hau ez dela hoberena.

Askotan pentsatzen dut gauzak txarto doazela.

Askotan pentsatzen dut hau ez dela nire mundua.

Askotan pentsatzen dut ez dagoela maitasuna.

Askotan pentsatzen dut soilik dagoela beldurra.

Beldurra, beldurra.

Gauzak konpontzen ez direnean,

beldurra nagusitzen denean,

arazoak jarraitzen direnean,

Askotan pentsatzen dut hau ez dela nire mundua.

Beldurra, beldurra.

Ez naiz galduko
ez naiz galduko bide ilunetan

ongi baitakit
ongi baitakit zein den helburua

botatzen badidate
ta jausten baldin banaiz

izango da, borrokan nenbilelako
izango da, konforme ez nengoelako

izango da, apostu egin bainuen askatasunean.

Ez dut ahaztuko
ez dut ahaztuko inoiz lagun onak

ongi baitakit
ongi baitakit hor nonbait daudela

ta ihes egin behar badut,
izkutatu behar banaiz,

izango da, libre bizi ez nintzelako
izango da, atzetikan neuzkalako

izango da, amets egin bainuen herri libre baten

Peru Alvarez Fdez de Mendia
1973
Gasteiz

2001ean atxilotu zuten eta Navalcarneroko espetxean dago.

C.P. Madrid IV
Carreteera Nacional 5, km. 28
28.600 Navalcarnero
Madrid

Kutxa magikoa

Bazen behin 1257 urtean Arabako lautadako basoetan barrenan ezkutaturik zegoen herri txikitxo bat. Nahiz eta bere sorrera denboraren itzaletan galtzen zen, urte horretan Zurbaro izenarekin agertzen zen "Donnemiliagako Rejaren Agirian". Burdinaren zerga agiri hau urtean behin herritarrek Donemiliagako monasterio boteretsuari 2 reja (10 biztanleko bana) eman behar ziotela suposatzen zuen, arima zein gorputzen zaintza ziurtatua eduki ahal izateko. Zurbao herri txikia zen, basoaren erdian zegoen Gasteiza zihoan bide zidorretik pixka bat urrunduta. Iparrean Gorbeia eta Albertia mendiak ikus zitezkeen eta urrutian Anboto, Udala eta Arlaban. Ekialdenan Elgea eta Adrian Deunaren mendizerrak; azken honetan Aitzgorri, Aratz eta Alzarriako tontor harritsuak. Hegoaldera so eginez Urbasa eta Entziako mendiak, Opakua, Oihana, Zaldiaran ... Sartaldean Arrateko gailurrean lokartuak zeuden Badaiako mendi zabalek ingurua ixten zuten. Herriko etxolak oso xumeak ziren, solairu bakar bateko zumar edo haritz zurezko egiturakoak. Zura sendotzeko lokatzez eta lastoz eginiko pezo moduko batez estaltzen zituzten zirrikituak eta teilatuak lastoz zein branka luzez eraikita zeuzkaten. Herrixkaren antolamendu edo egitura berezia zen, etxe batetik besterako tartea nabaria izan arren enbor sendoz altxaturiko hesi moduko defentsa sortua baitzeukaten.

1127 urtean Tamarako hitzarmenaren ondorioz Araba Iruñeko Erreinuari lotu zitzaion eta hainbat urte ondoren, 1181ean, Antso VI. Jakitunak Gasteizko hiriaren Forua sinatu zuen. Bertan hiriaren eta lautadaren bizitza arautzen zen, honi esker herritarrek egurra nonahi har zezaketen, bazkalekuak askeak ziren ere, labe edo errotarik zeukaten herritarrek ez zioten erregeari zergarik ordaindu behar, Elizak hamarrenen laurdena besterik ez zuen hartuko, bidesari eskubidea 4 edo 6 ogerlekoetan arautzen zuen ... Iruñeko Erreinuak Arabari ematen zion babes honek gutxi iraungo zuen 1198 urtean Alfontso VIII. Gaztelakoak, "Usurpatzailea" ezizenez ezaguna zena herritarren artean, eta Pedro II. Aragoikoak Nafarroa bi frontetik erasotzea erabaki baitzuten. Calixto III. eta Julio II. Aita Santuen laguntza ezinbestekoa suertatu zitzaien errege

biei Arabako inbasioa gauzatzeko aurrez hitzarturiko itun ugari bertan behera utzi zituzten eta ("Celestino III. Aita Sainduaren Bulda", Ingalaterrako Enrique II.arekin sinaturiko laudo-arbitrala...) Hitzarmen hauek guztiak bortxatu ondoren Gaztelako militar taldeek inbasioari ekin zioten Oka, Obaran eta Kantabriako mendietatik barrena aurkitu zituzten nafar-arabar gotorlekuak txiki-txiki eginez. Lautadari segurtasuna emateko Antso VI. Jakitunak Gasteizko hiria (Nueva Victoria izendatu zuena forua eman ostean) defendatzeko prestatu zuen: bi gaztelu-gotor, hiru kale nagusi eta beste hiru portale, Done Maria, Marko Deuna eta Done Ana, ondo antolatu zituen. Done Maria, Done Bikendi (aitzinean gaztelua zena) eta Mikel Deuna elizetako kanpandorretatik ikuspegi ezin hobea zeukaten errege nafarraren soldaduek. Done Maria hiruren artean ezagunena eta handitzetsuena zen. Harresian integraturik zegoen eliz gotiko hau gezi-leihoz beterik zegoen eta erronda pasabide zeukan hiriaren defentsa errazagoa bihurtzen zen.

Baina hau guztia ez zen inolako oztopo suertatu Gaztelako jazarleentzako Grarian, Portila, Treviño, Arluzea, Belaoga... be nafar gazteluak birrindu zituzten eta 1199ko uztailaren 5ean Gasteizko setioari ekin zioten kanoibateria, katapulta, ariete eta gerrarako beste hainbat arteetaz baliatuz. Gaztela zein Aragoiko mandatarien asmoa nabaria zen, Nafarroako Erreinuko mendebaldeko hiririk garrantzitsuena, Gasteiz, menperatuta bidea garbi izango zuten Gipuzkoa eta Bizkaia inbaditzeko. Alde batetik arrazoi politikoak zeuden, Nafarroako boterea gutxitzea bere inbasio osoa prestatzen joan ahal izateko, eta bestetik funtsezko arrazoi ekonomikoak. Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeak itsasorako ateak ziren, hari komertzialak bere esku egongo ziren, marinel trebeak beraien esanetara eta ontziak eta armak egiteko harri, burdin eta zura landuko zituzten artisauak bere menpe izango zituzten. Honetaz gain itsasoaren hamareuak Gaztelako erreinuaren diru-kutxak gizenduko zituzten eta ontzidiak itsas potentziaren izaera emango zion.

Gaztelak bere armada osoa Gasteizko setioan bederatzi hilabetez kokatu zuen. Hiritarrek gabeziak, gaitzak eta goseti luzea pairatu ostean Antso VII. Indartsuaren baimena lortu zuten kapitulazioa sinatzeko. 1200 urte-

an, beraz, Arabak bere independentzia galdu zuen Gaztelako okupazioa jasan eta gero. Honen ondorioz herria izugarrizko jazarpen ekonomikoa pairatzen hasi zen. Ugariak ziren herritar xumeek ordaindu beharreko zergak: opilarinzada, on bazendu avaria, azaquerrico, ozterate, qiriseilu zor, ilunbe zor, gaua aari… Oso izen ezberdinak hartzen zituzten baina guztien helburua bakarra zen beti ere: erreinu okupatzailearen kutxak loditzea. Zurbaotarrek ezin zioten zergei eutsi eta hainbat trikimailu asmatu zituzten ordain behar hauei muzin egiteko. Burdinola apalak zeuzkaten inguruko mendietatik barreiaturik, batzuk begi-bistan baina beste asko sasitzaz ezkutatzen zituzten Gaztelako erregearen aginduetara zeuden soldaduak ikus ez zitzaten.

Zurbaoko biztanleen artean oso neska berezia aurkitzen zen bere familiarekin batera. Nahiko etxe zabalean bizi ziren eta ohiko zereginetan ematen zuten eguna. Aita eta seme zaharrenak abeltzain eta ehiztariak ziren. Behi bi eta hiruzpalau ardi zaintzen zituzten familiaren mantenurako. Herrian zehar barreiaturik baratzeak zeuzkaten, non beraien biziraupenerako barazkiak landatzen zituzten: kipulak, porruak, uhazak, berroak, azenarioak, azak... Hauen zaintza emakumeen esku gelditzen zen. Abereak ere bazituzten, ez oso kopuru zabalean baina bizitzeko adina bai behintzat. Familiako gizonezkoak egunero basoan erregearen eremuen barrena isil-gordetan sartzen ziren haragi freskoa jateko eduki ahal izateko. Ugariak ziren han aurki zitzaketen basapiztiak: basurdeak, oreinak, otsoak, hartzak... Ehiztari benetan trebeak ziren zurbaotarrak. Batzuetan animalien gordelekuetaraino hurreratzen ziren eta trebezia askorekin landutako tranpak jartzen zituzten, gehienetan kalamu sokekin eginak ziren hauek. Tranpa txikiak ziren: erbiak, satorrak... eta horrelakoak harrapatzeko. Indar gehiago zeukaten animaliak bereganatzeko teknika ezberdina erabiltzen zuten: ehizakia begiztatzean ehiztarien artean beti eurekin lepotik zintzilik zeramaten adarraren bidez komunikatzen ziren. Adarrez gain miruaren antzekoa zen txistua egiten zuten. Lagunak edo kideak leku ezezagun edo bakartietara deitu nahi zituztenean hontzak balira abesten zuten, otsoaren ulua egitean ere helburu berbera bilatzen zuten. Isilpean hainbat pertsonen artean animalia inguratzen zuten zuhaitz eta sasitza artean ezkutaturik. Gutxika-gutxika piztia inguratzen

zihoazen eta irteera bakarra uzten zioten; baina ihes egiteko aproposa zirudien atea basapiztiaren ehiza ziurtatuko zuen sarrera besterik ez zen. Inguraturik zegoen animali beldurtuak aurrera jotzen zuen hil ala biziko ihesaldi batean baina bere zoritxarrerako, eta ehiztarien gozamenerako, hosto ezberdinez estalitako zulo batean erortzen zen. Animaliak bere burua harrapaturik ikusten zuenean barruan zeraman basakeria guztia azalarazten zuen. Halere gutxi egin zezakeen ehiztariek botatzen zizkioten azken zorrotzen aurrean. Egunean eguneko ehiza herrixka osatzen zuten familien artean banatzen zuten eta horrela jakia ziurtatua zeukaten.

Gure neskak egunero lizar eta burdinez eginiko hondeaitzurra eta laia bizkarrera botatzen zituen eta baratzera abiatzen zen alai eta kantari, txistuka, kanta-marmarrean. Ez ohiko neskatxa zen azenario kolore distiratsuko ile kixkurra baitzeukan, herri osoan ez zegoen bera bezain neska lerdenik. Isila zen baina barreneko poztasuna azalarazten zuen eta gora eta behera zebilen paseoan beti etxeko txakur eta katuekin lagunduta. Bere bihotz eta buruarekin maiz hitz egiten zuen. Baratzean aritu ondoren egiten zituen mendian eta basoan barreneko ibilaldi ugarietan istorio ederrak asmatzen zituen. Izatez jakingura handiko neskatoa zen eta herriaren inguruan gertatzen zenaz informazio zehatza zeukan.

Egun eguzkitsu bateko arratsaldean ile kixkurra basoan zehar loren bila abiatu zen. Gustuko zuen basoko lasaitasunean murgiltzea eta bazterrak ondo ezagutzen zituenez ez zen galtzeko beldur. Otxategitik Arbineasera abiatu zen. Txapelazurin zegoen Gaztua erreka igaro ondoren Errekarte, Lakondoa, Aizpeluzubia, Bastiberdea eta Basabarrenguako eremuetatik pasa eta Bekobarriatik gertu zegoen harizti itxi batean eman zuen denbora. Hemendik zihoala beti laguntzen zuten katuek ez ohiko mugimenduak egiten eta marraka hasi zirela konturatu zen. Gaztaroak ematen zizkion azkartasun eta bizkortasunari esker berehala igo zen zuhaitz batera. Handik ingurunean gertatzen ziren mugimendu guztiak begiztatzen zituen. Begiak zarata zetorren aldera zorrotz-zorrotz abiatu eta ezezagun bat ikustea lortu zuen. Pertsona gaztea zen, bere adinekoa gutxi gora bera, belaunetara heltzen zitzaizkion galtza beltz eta motzak jantzita

zituena. Oinetan uhal batzuen bitartez loturak oin zolak besterik estaltzen ez zituen eta goialdea agerian uzten zieten abarkak zeramatzan, iledun lamiazkoak, hau da, ontze edo zumatze gabeak. Zaia soin gainean zuen, ukondoraino heltzen zitzaion artile ilunezko gainjantzia, txano moduan. Baldarki jantzita zihoan eta bere bizar gorri ugaria zein ile luzexkek basati itxura ematen zioten. Baina bere jokamoldeak ez zuen inolako basakeriarik adierazten, basoan zehar lasai asko zebilen lurrean behin eta berriro finkatuz bere begi-bista. Neskatoak jakin-minez behatu zuen, ez zuen denbora askorik eman mutil ezezagunak bilatzen zuena loreak, landareak, sustraiak edo belarrak zirela konturatzen. Bizargorria pauso txikiak emanez mugitzen zen, alde batera eta bestera so eginez eta zerbait aurkitzean ahunintz-larruz eginiko zaku batean kontu handiarekin sartzen zuen. Horretan ari zela neskatoaren txakur eta katuek berarengana hurreratu ziren. Gutxika-gutxika inguratzen joan ziren. Azkenean mutilak lasaitasun osoz eurekin jolasean hasi zen animaliekin egotera ohitura daukanaren abilezia adieraziz. Denbora igaro ahala neskak lehen unean edukitako zuhurtasuna gutxitzen joan zen eta pertsonaia hori ezagutzeko asmoz zuhaitzaren ezkutalekua utzi zuen.

-Kaixo!-esan zion neskak zuhaitzetik isilka jaitsi ondoren-. Zertan ari zara?
-Mutilak senezko jauzia eman zuen atzeruntz.
-Kai, kai... kaixo, nor zara? Nondik agertu zara?- galdetu zion mutilak erabat harrituta eta ikara puntu batekin.
-Oh, lasai, hemendik gertu dagoen Zurbao herrikoa naiz, askotan basotik paseoan ibiltzen naiz eta gaur zu ikustean ezkutatu eta egiten ari zinena zelatan aritu naiz. Zer nolako belarrak ari zinen hartzen?

Mutilak sendabelarrak biltzen zegoela azaldu zion, bakarrik bizi zenez ukendu ezberdinak egiten zituela balizko gaixoaldiak baretzeko asmoarekin. Belarrez beteriko poltsa erakutsi zion eta bakoitza zertarako erabiltzen zuen banaka azaltzen hasi zitzaion: gosea pizteko txikorri belarra, urduritasuna baretzeko elorria, hanturak jaisteko nasailora, eztula baretzeko biri-belarra, azala deshidratatzeko alkerkaratsa... Azalpen hauek guztiak ematen zituen bitartean neskatoak buru belarri ikertzen zuen, beraien hizkerak antzekoak ziren baina bizargorriarenak ez zuen latina-

ren hainbeste kutsadurarik. Batzuetan neskak ulertzen ez zituen hitzak eta esaera zaharrak aipatzen zituen. Berehala gogoratu zuen neskak bere amamak askotan irakurtzen zion liburu baten pasartea eta bat-batean horrela bota zion:
-"Ipsi sunt feroces et terra in qua commarantur ferox et silvesters et barbara habetur; ferocitas vultuum similitudinisque lingue barbare eorum, corda videncium illos expavescit ..."- buruz gogoratzen zituen hitz hauek.
-"Hec terra lingua barbara habetur", har, har, har. Ikus daitekeenez zuk ere badaukazu Parthenay-le-vieuxeko Aymeric Picauden "Code Compostellanus"en berri. Bai neska, ondo asmatu duzunez ni ez naiz lautadakoa, nire hizkuntza kostaldekoa da, hangoa naiz ni. Hala ere idazle kanpotar horrek guri buruz idatzitakoak[1] ez dauka ez buru ez hankarik. Gainera, horren moduko idazkiak gure herrien inbasioari bide eman dizkiotenak izan dira, gezurretan oinarrituz kanpotar soldaduek gure herriak inbaditu eta urruti ihes egitera behartu gaituzte.

Bere ahotsa gero eta baxuagoa zen eta distira bereziak jabetzen zituen bere begiak. Neskatoak sumindura eta atsekabea sumatu zituen bizargorriaren begiradan. Isilune luzexka baten ondoren kostaldekoa zela azaltzen hasi zitzaion, marinel lanetan ibilia zen eta orain urte batzuk itsasotik itzultzean bere herrira sutan, erabat suntsitua, aurkitu zuela. Gaztelako soldaduek inbaditua zuten eta bere etxea zenaren hondakinak besterik ez zituela ikusi bokaletik sartu bezain laster. Gaua arte itxaron zuen itsasoan beste hainbat itsas lagunekin eta isilpean itzuli ziren herrira. Ez zuen bere familiaren eta lagunen arrastorik aurkitu erabat birrindutako etxeen artean eta ihes egitea lortu zutenaren itxaropenarekin euren bilaketari ekin zion. Zurbaoko baso horretan zehar hainbat ilargi zeramala aipatu zion eta bere etxola ikustera gonbidatu zuen neskatoa. Honek baiezkoa eman eta hara abiatu ziren biak txakur eta hartzez inguraturik.

1. *Basatiak dira eta bizi diren lurra ankerra da, larrekoa eta basatia, euren aurpegien krudeltasunak eta euren hizkuntza basatia begiratzen dietenei beldur ematen die.

Basoaren leku itxi batera heldu ostean mutilak sasi eta zuhaitzen artean ezkutaturik zeukan kalamu soka bat agerrarazi zuen eta hortik igotzen hasi zen neska segika zuela. Zuhaitzen artean eginiko zurezko etxola batera ailegatu ziren, txikia baina benetan erosoa iruditu zitzaion neskari. Belar ezberdinez beterik zegoen, liburu zahar batzuk eta lastoz eginiko ohe bat. Bizargorriak gauza gutxi zeuzkala azaldu zion, leku batetik bestera ibiltzera ohituta baitzegoen. Sagardo goxoa eta ezkur ehotuaz eginiko opil moduko bat dastatzera eman zion. Bere amamak noizean behin egiten zuenaren antza hartu zion, antzinako errezeta izango zela suposatu zuen Zurbaon aspaldi ezkurrekin baino garia txikituz harrizko labe batean egiten zuten ogia eta. Denbora itzela eman zuten kontu kontari, neskaren irribarreak aspaldi galduta zeukan poztasuna ekarri zion mutilari; azal zuri leuna zeukan eta liluratzen zuen ahots suabe eta melenga. Ilargi bat beste baten ostean bere aldamenean igaro nahi zituela konturatu zen bizargorria Neska azkarra eta bizia zela iruditzen zitzaion, beti ikasteko prest zegoena, eta honetaz gain soin eder eta liraina zeukan. Aspaldi ez zuen horrelako sentsazio goxo eta ziragarririk nabaritzen eta solasaldi emankor hura inoiz ez bukatzeko irrikatan zegoen. Baina denborak aurrera jotzen zuen eta eguzkia mendien artean ezkutatzera zihoanean neskatoak Zurbaora itzuli behar zuela esan zion. Jauzi trebe batez altxa eta mutila konturatu gabe ezpainetan muxu bat eman eta korrika desagertu zen etxolatik. Mutilak apenas ez zuen agurtzeko denborarik izan hain ezusteko ederra hartu baitzuen muxuaz jabetzerakoan.

Garai horretan ohikoa zen familien biziraupenerako bide ezberdinak jorratzea eta haien artean hiriko merkatuan euren lanen emaitzak saltzea zegoen. Eguneko beharrei eusteaz gain zurbaotarrek ehiza eta jaki ezberdinak astero-astero Gasteiza eramaten zituzten bertako azoka ezagunean saldu ahal izateko. Preziatuak ziren oso herritarren produktuak eta berauen salmentarekin lorturiko sosa apurrekin ozta-ozta bizitzen jarraitzeko adina zeukaten, benetan ugariak eta itogarriak baitziren Gaztelako erreinuak ezarritako zerga bidegabeak. Ostegunero neskatoa ordu txikitan esnatu eta Zurbaoko herritar guztien esku zegoen gurdia prestatzen hasten zen. Lehenik eta behin aurreko eguneko arratsaldean pilaturiko produktu guztiak pisutsuenetatik hasita zamatzen hasten zen, gero gurdiari estalkia gogor lotzen zion eta idien bila joaten zen. Idi biko-

tea sendo eta gaztea zen, ez ziren bada biak batere bizkorrak eta horrek uztartzea errazten zuen. Goiza nabarmentzen hasten zenean bukatzen zituen lan hauek guztiak, hori zen bere zereginetako bat familiaren barnean. Kasik gosaldu ostean zen Gasteiza aldera, azokara garaiz iristeak salmenta leku egoki bat eskuratzea zekarren, beharrezko ordainketa guztiak burutu eta gero (bidesaria, portale zerga, azoka zerga…) Erromatarren garaietatik hirira zihoan galtzadaraino heltzeko bidezidor zulotua erabili behar zuen eta honek ez zuen bidaia batere eroso egiten; hainbat ordu eman behar zituen gurdiaren gainean. Ostegun batean lagun gisa zeramatzan txakur eta katuak saltoka eta jira-biraka hasi ziren bat-batean, oso egoera barregarria iruditu zitzaion neskari. Hala eta guztiz ere begirada zorrotz bat bota zuen inguruari animalien artean horrelako erreakzioa zerk sortarazi zezakeen ziurtatzeko. Bera zegoen lekutik gertu eta lainoaren artean berarengana zuzen zuzenean zihoan irudi bat ikusi zuen. Mugimendu azkar batekin gerrikoan txikitatik zeraman labana eskuratu zuen eta hainbeste lan ordu, neke eta izerdiz lortutako familiaren "altxor" txikia defendatzeko prestatu zen. Behin baino gehiagotan egina zion aurre bidelapurrei eta kantsagarri suertatzen ziren hainbat eskaleei: borrokatzeko prest zegoen. Laino artean irudia gero eta handiagoa bihurtzen ari zen eta oso distantzia motzera zegoenean eta neskak labana eskuan zuela ezezagunaren gainean jauzi egiteko prest zegoenean basoan egun batzuk lehenago topatu zuen mutil bizar gorria zela konturatu egin zen. Bihotzez poztu zen eta tentu osoz labana bere gordelekura itzuli zuen. Mutilak ezustekoagatik barkamena eskatu zion eta ea Gasteizeraino gurdian bidaide gisa onartuko al zuen galdetu. Egun horretatik aurrera ostegunero elkarrekin joaten ziren azokara. Herritik urruti samar zegoen bidexkaren bihurgune batean itxoiten zuen mutilak gurdia eta hirirainoko bidea kontu-kontari betetzen zuten. Bizargorriak itsaso, mendi zein bailarekin harremana zeukaten pertsonaia magikoen inguruko elezahar ugari ezagutzen zituen eta ahoa bete hortz zuen neskatoa galtzagorri, Mari, azti eta abarrekoen kondairak azaltzen zizkionean.

Neskato ile kixkurra ere ez zen gibelera gelditzen eta bere amamari entzundako basoko biztanleen kondairak bere ahots leun eta goxoarekin azaltzen zizkion. Noizean behin bietako batek zerbait barregarria botatzen zuen eta algara bizian igarotzen zuten bidea. Alaitasun hau txakur

zein katuei ere kutsatzen zieten sekulako itzulipurdiak eta jauziak egiten baitzituzten isatsa eta belarriak bizkor mugitzen zituzten bitartean.

Bidaia motel egiten zuten baina halere solasaldi berritsuan aritzen zirenez denbora oso azkar pasatzen zitzaien.

Bekoibanatik eta Saburuako basotik igarotzen zen galtzada, eta ohikoa zen bide erdian oreinak, erbiak eta basurdeak topatzea. Azken hauekin bat egiteak idiak oso aztoratzen zituen eta beldurrak jota batek alde batera ihes egiten saiatzen zenean besteak beste aldera jotzen zuen indar osoz, horrek guztiak suposatzen zuen gurdia kontrolatzeko zailtasunarekin. Neskatoari behin baino gehiagotan gertatua zitzaion eta ez zen batere egoera gozagarria izan. Errekabarri ibaiak Salburua zeharkatzen zuen Zadorrara bere urak isurtzeko; berau igarotzeko Hearia deituriko harrizko zubi sendoa zegoen. "Infernupeko zubia" deitzen zioten ere eta bere inguruan antzin-antzinean gertaturiko kondaira aiton-amonek euren seme-alaba eta bilobei ahoz-aho azaltzen zietela aipatu zion neskak bizargorriri. Zirudienez Gasteiz etxola xumeen bilgune hutsa zenean bertakoek Salburua oihanera joaten omen ziren ehizean. Behin 12 adarreko orein sendo eta eder bat atzeman ostean bere atzetik arku, gezi eta lantzekin korrika atera ziren. Ibaiaren ertz batean zokoratzea lortu zuten baina bere bizitza arriskuan ikusirik jauzi miresgarria eman eta beste ertzeko pago eta sasien artean ihes egin zuen. Behin eta berriro jazotzen zen gertakari hau eta herritarrei, izugarrizko orein hau burutik ezin aldendurik, deabruarengana jotzea otu zitzaien. Deabruak ibaia zeharkatu ahal izateko harrizko zubi bat gau batean eraikiko ziela agindu zien. Egitandi honen truke herriko neska gazteen arimak eskuratuko zituen. Hain itsuturik zeuden oreinaren ehizarekin aho batez baiezkoa eman ziotela. Gauerdian jo ta su hasi zen deabrua bere lanari ekiten, harriak alde batetik bestera garraiatuz eta bata bestearen gainean jarriz. Lan nekagarria zuen baina saria ere ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Deabruak gutxika-gutxika eraman zuen aurrera betebeharra, egindako denbora kalkuluak zehaztasunez betez. Azken harria jartzera zihoanean irribarre maltzurra antzeman zitzaion, baina irriño hau inoiz paraje horietatik entzundako oihu lazgarrienean eraldatu zitzaion egunaren lehen

argi izpiak mendien artean agertzen ari zirela konturatu zenean. Zubia egina baina azkeneko harri hau jarri gabe alde egin behar izan zuen deabruak egunaren argitasunak kontsumitu ez zezan.

Horregatik Salburuako basoan zegoen zubiaren alde batean harri baten falta sumatu zituen. Hain istorio bereziari muzin eginez leku horretan kokatzen zuten soldaduek aginte-postua 4 zilarreko ogerlekotako bidesaria kobratzeko. Geroago Done Mariako portalean Gasteizko hirian sartu ahal izateko ordaindu beharko zituzten urrezko 6 ogerlekoen aurrekaria zen zubiko zerga hau.

Gasteiza hurreratzen ziren heinean bizargorria guardiak eta soldaduak ikusi ahala urduri jartzen zela konturatzen zen neskatoa. Une horietara arte izandako irribarre zabala zeharo desagertzen zen eta zur eta lur uzten zuen begirada bat asmatzen zitzaion, amorruz beterikoa. Neskatoak ez zion ezer galdetzen eta isilune lazgarri batek batzen zuen egoera. Gorroto begirada hura azken ilargi luzeetako suzko eta desio begirakunetik oso urrun zegoen, neskak bizargorriaren etxolan igarotzen zituen egunetan ikusiriko begirada samurretik oso urruti. Ustekabeko aldaketa hauengatik galdetzen zionean mutilak bere senetik aterata eta ahots larriz Gaztelako menpekoek buruturiko hilketez, biolentziaz, lur okupatuetaz, inbasioetaz... hitz egiten zion. Oso urrutiko istorioak zirela iruditzen zitzaion ile kixkurra zuen neskari. Zurbaon errege berriaren inguruko bidegabekerietaz zerbait entzuna zien agureei baina horrelako istorioak entzuten egon beharrean nahiago zuen astia baso eta mendietan barrena ibilbideak egiten igarotzea. Inori ez zion argitasun osoz horren moduko gertaera latzen inguruan azalpenik ematen. Jakingura bazuen ere, ez zuen gustuko hainbeste jenderi sufrimendua sortarazten zien gertakarien berri izatea.

Gasteizko Sarreran Done Maria portaletik egiten zuten. Harresi berri sendo batez inguraturik zegoen hiri muinoa baina bere ingurunean hainbat egurrezko etxola eraikita zeuzkaten. Goratu gabeko bizilekuak ziren, non hainbat lanbideen tailerrak agertzen hasiak ziren: olagizonak, larruontzaileak, eltzegileak... Portalearen aurrean sekulako hika-mikak sortzen

ziren jende kopuru dezentea baitzegoen hirira sar ez zitekeena bidesaria ordaintzea ezinezkoa zitzaiolako. Gaztelako soldaduez josia zegoen hiria eta portaleetan hauen kopurua biderkatu egiten zen. Egunez egun soldaduen bortizkeria eta jendearenganako kitzikapena areagotzen zihoan heinean herri xehearen animuak sutzen zihoazen. Ez zen goiz edo arratsalderik falta noiz liskarren bat ez zenik gertatzen. Neska eta mutilak ez zuten arazo larririk izaten ataria zeharkatzeko bidesaria esku-dirutan ordaintzen baitzuten. Soldaduek diruarengatik besterik ez ziren arduratzen eta behin kobratuz gero lasai asko hirian sartzen uzten zieten.

Bizargorriak portalea ikusten zuen bakoitzean ahoa bete hortz gelditzen zen. Bizkaia aldean zeuden harrobietatik ekarriko harri sendoz eraikitako puntu erdiko arkua zen, hiria defendatzeko balio zuen burdinazko puntazorrotz hesi batekin. Arazo larriak zeudenean antzina asmaturiko txirrika sistema erraz batekin burdinsarea jaitsi eta egur eta burdinazko ate erraldoi bezain pisutsu batek muinoa kanpoaldetik isolatzen zuen. Inoiz ez zuen holakorik ikusi bere herrian ataria ganorazko defentsarik ez zuen zubi zahar batean zetzalako eta beste aldetik itsasoa zabaltasun osoan baitzeukaten. Txunditurik begiratzen zien erribera, soka ... eta defentsarako hain sistema berezia betetzen zuten beste hainbeste osagaiei. Baina atariak lelotzen bazuen hirian zehar ikus zezakeena liluratzen zuen. Neskak honek jartzen zituen aurpegiak ikustea gustuko zuen, berari barre egiten zion ez baitzuen ulertzen nolatan inork hain ohiko gauzak ikustearekin zur eta lur gera zitekeenik. Bizargorriak urteak zeramatzan mendiz-mendi eta basoz-baso kasik jendearekin harremanik izan gabe. Kaleetan zehar gurdiarekin joan ahala, hiritarren artean zer nolako ezberdintasunak zeuden azaltzen zizkion ile kixkurrak. Erraza zen bakoitzaren jatorria asmatzea, herritar xumeek lan egiteko arropa zahar baina erosoa zeramaten soinean. Lanbide bakoitzeko partaideen arropak zertan lan egiten zuten adierazten zuen: okinek zuriz janzten ziren; laban, ezpata eta burdina lantzen zutenek bularra biluzik zeukaten eta larru lodi bat mantala gisa ... Baina ezberdintasun esanguratsuena infantzoi eta herri xehearen artean nabaritzen zen. Lehengoaren arropak kalitate handiagokoak ziren eta askotan urrez, zilarrez eta harribitxi ezberdinez landutako osagarriak euren gainean zeramatzaten, beste hiritarrak baino gizarte-mailan

hobeto kokatuta egotearen adierazle. Beraien etxeak harrizkoak ziren, oso ondo eraikiak eta defentsa ziurtatzen zuten hainbat osagaiekin. Benetan ikusgarriak ziren Mendozatarren, Belaskotarren, Eskibeltarren... etxe-gotorrak. Errentatzaileak zirenez ez zuten inolako lanik burutzen, denbora dirua zaintzen besterik ez zuten ematen. Bizimolde horri eusteko herri xeheari tailerrak, etxeak eta inguruko herrietan barreiaturik zeuzkaten lurren errentak aldiro igotzen zizkieten. Infantzoien leinu ezberdinen artean, hala eta guztiz ere, ezinikusiak nabariak ziren oso. Honek guztiak han hirian bortizkeria eta gorroto giroa azalean egotea suposatzen zuen. Ezberdintasunen areagotze hau kultura mailan ere agertzen zen. Nahiz eta Gasteizen katolikoek gehiengoa izan judutar eta islamiarren kopurua goraka zihoan. Bizargorriaren ezusteko aurpegiak bere gailena jo zuen bat-batean. Aiztogile kalearen erdian, goitik behera oihal ezberdinekin bere irudia ezkutatzen zuen pertsona batekin egin zutenean topo. Aurpegia zailtasunez asmatzen zitzaion eta hauxe belearen kolorekoa zen. Izutu egin zen mutila irudiak bat-batean eskua altxa eta neskari begirada zuzenduta horrela hasi zitzaionean:

-Allah u-akbar! Sabah al-jher,andic shaar jleum d´jadha. [2]

-Sabah al-jher. Egunon baita ere zuri Rachmid El Mourabet, zer moduz zaude?

-Ondo, ondo, Allah jainkoari esker. Gaur merkatu, gaur oihal politak nik saldu.

-Primeran, guk ere herriko produktuak saltzera etorri gara, beti bezala. Rachmid, hau nire laguna da -ahoa irekita eta begiak plater borobilen antzera zeuzkan bizargorri eriaz erakusten- konturatu zarenez lehenengo aldia da zu lako islamiar bat ikusten duena, barkaiozu bere atrebentzia, mesedez.

- Har, har, har... Berdin du, nik ohituta, har, har, har, nik ohituta. Insheer lekjael m-shiuak f´terek. Ma´ha shalama. Allah v-akbar[3]

-N´jhom m-shiuak f´terek, Rachmid, n´chauf-no. Ondo izan[4].

2- Allah handia da! Egunon, azenario koloreko ilea daukazun hori.

3- Arrano Beltzak zuen bidea erakuts diezazuela. Agur. Allah handia da.

4- Izarrek zurea erakuts diezazutela, Rachmid, gero arte.

Barrez lehertzeko zorian agurtu zuten elkar. Neskatoa algara batean zihoan bizargorriak zeukan lelo aurpegiari so eginez. Berera itzuli zenean inoiz ikusitako pertsonaiarik arraroena zela aitortu zion mutilak. Urteetan itsas barrenean arituta bazen ere inoiz ez zuen holakorik ikusteko aukerarik izan. Ez zuen ulertzen pertsona batek hain azal kolore iluna izan zezakeen, txikitan laberen batean erretzen utzi al zuten edo galdetu zion neskari. Honek gurdia gelditu eta lurrera jauzi egin behar izan zuen erori ez egiteko, denbora luzea eman zuen barrezka.

Bizargorriarekin hirira joaten zen bakoitzean horrelako moduko pasadizoren bat gertatzen zitzaien. Beste behin, Done Mariako portalea igaro ondoren zaia luze, bele begirada, kokospeko, neska bezain ilegorria eta buruan boneta edo txapela oso txiki moduko baten antza zeraman pertsona bat aurkitu zuten:
-Kaixo Ail-Erua Shamok! Ilargiak ez gintuztela elkar ikusten.
-Kaixo Efrain Ha-levi, bai, arrazoi osoa daukazu, aspaldi ez naizela Madinat al Yahudetik[5] agertu. Sentitzen dut baina azken boladan oso lanpeturik ibili gara Zurbaon-, erantzun zion irriño batekin neskatoak.
-Bai, garai latzak dira guztiontzako, zergak gero eta ugariagoak dira eta lana besterik ezin dugu egin honi aurre egiteko. Beno, berriek[6], Madinat al Yahudeko muccadinekin[7] hitz egitera joan behar dut. Nire goraintziak helarazi zure senideei, Ail-Erua. Yhaveh-k zain zaitzatela!

Hiriko judutarren artean bedin[8] lanak burutzen zituen aspaldiko judutar ezaguna zela azaldu zion hainbeste hitz arraro entzutear sor eta lor zegoen bizargorriari, legez judutarren eta katolikoen arteko hartu emanak debekatuak zeuden baina Gasteizen legedi hau praktikan ez zen inolaz ere betetzen eta nahiko harreman normala zegoen komunitateen artean.

5- Madinat al Yahud: juduaren bizilekua, auzoa, juderia.

6- Berriek: talentu eta energia handiko emakumea.

7- Muccadin: zahar, agure.

8- Bedin: fiskala eta polizia.

Gutxika-gutxika mutilak hiriko ustekabeei ohitura hartzen zihoan eta askotan neskak azokan produktuak saltzen astia ematen zuen bitartean bera hirian gora eta behera aritzen zen. Done Maria katedralaren aurrean zegoen enparantzaren biltzen ziren produktuak salgai zeuzkatenak: ehiza lamiatzako labanak, arropa, lapikoak, ukenduak, lanabesak... Saltzaile hauek jaki ezberdinak saltzen edo trukean ematen zituztenekin nahasten ziren. Azokan bere produktuak saldu ahal izateko "lezda" zerga egokia ordaindu ostean neskatoak gurdiaren aurrean, lurrean bertan txukuntxukun oihal zahar bat botatzen zuen eta honen gainean Zurbaon landaturiko porruak, azenarioak, uhazak, berroak eta abar jartzen zituen. Orein, basurde, azeri eta otso haragia ere salgai zeukan azokara bertaratzen zen gehienetan. Ostegunero jende piloa inguratzen zitzaion barazkiak erosteko nahian hala nola basurde hortzak edota orein adarrak ikusteko jakin minez. Mutilak salmenta tokia apaintzen lagundu ondoren hiritik ibilbidea egitera joaten zen. Gasteizko "ezustekoekin" ohituta zegoen eta denboraren poderioz hiritarren artean beraietako bat balitz bezala aritzen zen kantoi eta kale aldapatsuetatik gora eta behera.

Neskak ez zuen desagerpen luze hauen zioa eta galdetzen zion bakoitzean begirada iheskor eta malenkoniatsu bat besterik ez zuen izaten erantzun gisa. Begirada iheskor eta malenkoniatsu bat besterik ez zuen izaten erantzun gisa. Batzuetan besapean liburu bat zuela txistuka agertzen zen; behin Monmmoutheko Geoffroiren "Bretañako Errege Historia", non Arturo erregea eta Merlin Aztiak Brocelandiatik izaniko abenturak azaltzen ziren, liburuarekin agertu zitzaion. Biri-belarraz eginiko eztula kentzeko ukendu baten truke lortu omen zuen erementariz lepo zegoen kale bateko komentu batean.

Ohiko zen bizargorria liburuekin ikustea baina Zurbaoko basoetara itzultzean inoiz ez zuen ahazten egurrezko kutxa berezi batzuk eramatea. Azoka eguna zen bakoitzean neskarengana landutako itxura ezberdinak zeuzkaten egurrezko kutxekin itzultzen zen. Laukidunak, borobilak, laukizuzenak, hiruki itxurakoak, handiak, txikiak, haritzezkoak, pago zurarekin eginikoak, iharrez eginikoak... Guzti guztiak oso irudi bitxiak zizelka-

tuak zeuzkaten. Neskatoak hauen zentzua ez zuen ulertzen eta bizargorriak Zurbaorako itzulbidea profitatzen zuen bakoitzaren esanahia argitzeko. Antzin-antzinako irudiak omen ziren, lautadako herrietatik zehar kristautasuna oraindik ere urruti gelditzen zeneko garaietakoa. Baskoien keinuetaz, bardulioetaz, austragoietaz... aritzen zitzaion mutilak eta orduan ezusteko aurpegia neskarenean zabaltzen zen ez baitzuen inoiz horrelako jendearen inguruan ezer entzun. Egurrezko kutxa landuetan agertzen ziren tailuak Ama Lurraren osagai ezberdinen irudikapenak zirela azaltzen zion, antzinako biztanleek bere inguruan sumatzen zituzten gertakarien irudikatzea: eguzkia, izarrak, ilargia, herioa, bizitza...

Bizargorriaren etxolan neskatoak hara joan zen lehenengo aldian ikusi ez zuen kutxa handi-handi bat antzeman zuen. Bizargorriak bertan gordetzen zituen astez-aste lortzen zituen kutxatxoak. Ile kixkurrak etxolara egiten zituen bisitaldiak gero eta ugariagoak ziren eta gazteen begietan bata bestearengatik sentitzen zuten sentimendu hutsetik haratago zihoan begirada dirdiratsu eta sakonak suma zitezkeen. Handik agertzen zen bakoitzean denbora itzela ematen zuen kutxa handiaren aurrean, txundituta. Orduan bizargorriak astiro ireki eta barnean zeuden kutxak oihal zuri batez garbitzeari ekiten zien. Neskatoak zeregin honetan laguntzen zuen baina beti ere bizargorriak behin egin zion ohartarazpena errespetatuz:

-Ile kixkur, aspaldi soldaduek galdu arazi zidaten irribarrea eta bizitzeko grina itzuli didazun pertsona zera. Horregatik zure aldamenean egotea izugarri gustuko dut, horregatik ere gustuko dut nire altxor preziatuena den kutxa berezi bilduma hau zurekin partitzea. Baina zin egin behar didazu nik esan arte ez dituzula irekiko.

Hain serio aritu zion, neskak ez zuela kutxarik irekitzen. Bien artean kontu kontari aritzen ziren bitartean lauburuak, ekiloreak, Arrano Beltzak eta beste hainbeste zurean landutako irudiei so egiten zien. Etxolan gora eta behera saltoka eta itzulipurdika egoten ziren neskatoaren txakur eta katuek ere jolasak alde batera uzten zituzten eta irudienganako ikusminak blaitzen zituen. Mutilak isiltasun osoz begiratzen zion neskatoari eta

berarengatik bihotzean nabaritzen zuenaren azalpenik emateko beldur zen. Etxola oso txikia zenez behin baino gehiagotan bien gorputzek elkar ukitzen zuten eta orduan begirada sakon luzeek isiltasunaz eta desioaz blaitzen zuten tokia. Lotsaren lotsaz gorritzen ziren biak eta tarte hau igarota edozein betebeharri ekiten zioten. Baina biak konturatzen hasiak ziren egunak eta gauak igaro ahala edozein aitzakiaren bila aritzen zirela gorputzen ukitu honek sortarazten zuen berotasunaz gozatzeko. Uda bukatzear zela, basoan zeharkatze bat egin zuten gazte biek, giro epela zegoen ilunabar horretan, eta landare ezberdinen usaina bere osotasun osoz nabari zezaketen. Euren arteko begiradak gurutzatu ziren unean hainbat egunetan zehar ernetzen joan zen sentimendu piloari bidea eman zion goxoki musukatuz. Gau aparta igaro zuten, urtetan gogoratuko zutena. Basoko belarrak bat-bateko ohe gisa erabili zituzten eta hotzak bi gorputz biluziak hozten hasi zenean zuhaitzen arteko etxolara abiatu ziren. Egunaren lehenengo izpiak zuren zirrikituen artean sartzen hasi zirenean elkarri besarkaturik loak hartu zituen bi gazteak.

Zorioneko gau horren ostean neska maizago hasi zen etxolatik agertzen bisitaldiak gero eta ugariagoak ziren eta behin baino gehiagotan bertan gelditzen zen lo egiten. Bizargorria ere batzuetan Zurbaoraino hurreratu eta baratz lanetan laguntza ematen zion ile kixkurrari. Ostegunero bidaide berritsu bihurtzen ziren Gasteizko azokaruntz idi geldi pareak tiratuko gurdiaren gainean. Azoka amaitzear zegoela Done Mariako enparantzatik, kutxa berriren bat zeramala, neskari laguntzeko prest agertzen zen beti. Pozik zeuden elkarrekin baina zorigaiztoko eguna pairatzea ere egokitu zitzaien.

Euren sentimenduei inolako oztoporik jarri ez zioten gau izartsu bat igaro ondoren, egunsentian etxolatik jaitsi eta Zurbaorako norabidea hartzera zihoazela bere senetik ateratako soldadu kopuru zehatzezin batek gazteen gainera erori zitzaien. Oihu eta mehatxuak nonahi entzuten ziren eta zer gertatzen ari zen konturatu orduko bizargorria lurrean zetzan armaz gainezka zeuden lau soldaduk mugitzen uzten ez ziotelarik. Baleztaz, geziz, lantzaz, labanaz eta ezpataz horniturik zihoazenen begie-

tan nabaritzen erraza zen gorrotoa eta odol gosea. Neska bultzaka bota zuten lurrera mutila jipoitzen zuten bitartean. Oihu, mehatxu eta kolpeen artean bi gazteen begirada izutuek bat egin zuten, segundo eskasak izan ziren baina nahikoak suertatu zitzaizkion mutilari keinu berezi bat egiteko. Gurdi batera kolpeka igo zuten neska lurrean negar zotinka utziz. Mutilaren keinua zuen buruan eta behin soldaduak joan zirela lasterka batean zuhaitzen artera igo zen; ez zuen zer gertatzen ari zen ulertzen baina hainbat alditan miretsiriko kutxa handian erantzunen bat aurki zezakeela iruditzen zitzaion. Bizargorriaren keinuak kutxan begiratu behar zuela adierazten ziola asmatu zuen. Negar malkoak bere begi politak gorritzen zituzten eta aurpegi leun eta ederra blaitzen egurrezko kutxa handiaren aurrean belauniko jarri zenean. Arnasa sakon hartu eta ireki egin zuen, kutxatxo guztien gainean une horretara arte ikusi ez zuen antzinakoa zirudien larrutx bat topatu zuen. Ikarati oraindik ere, biribilkatuta zegoen pergaminoa hedatu eta bizargorriaren hizki ahaztezinak irakurtzeari ekin zion:

"Kaixo laztana! Ez zaitez gertatutakoarekin gehiegi larritu ziur bainaiz egunen batean elkarrekin egongo garela berriro. Ez negarrik egin, zure irribarrea zabaldu behar duzu eguzki izpi distiratsuen antzera. Kasik denborarik ez dut izan elkarrekin igaro ditugun egun eta gau zoragarri hauetan nondik nentorren zuri azaltzeko, nire herriaren historiaren berri emateko. Hainbeste gustuko dituzun kutxa horrek harreman estua dute nire herriaren bilakaerarekin. Mendi zein kostaldean barreiaturiko leinuen artean milaka urtetan zehar ohitura berezia mantendu da. Kristautasunak gure lurrak inbaditu baino lehenago gure arbasoek Ama lurrarekin harreman berezia zeukaten. Eta azken honek, bere eskerrona adierazteko, gure lurralde zabalean zehar kokaturik zeuden tribuen artean kutxa magiko batzuk hedatu zituen.

Orain eskuartean dauzkazun hauek, belaunaldiz belaunaldi eskualdatuak izan diren egur ezberdinez landuriko kutxa hauek magiko bihurtzen dira lurra eta arbasoei errespetua zor dietenen, beretarrak maite eta datorrenentzako mundu hobeago bat nahi dutenen eskuetan. Kutxa magiko bakoitzak botere ezberdinak gordetzen ditu bere barnean: maitasuna,

indarra, poztasuna, errebeldia... Kutxa bakoitza irekitzen duen pertsona hauetaz guztiaz blaitu egiten da aurreko baldintzak betetzen baditu eta inoiz agertzen ez direlakoan datza bere magikotasuna.

Mendietan zehar lurralde ezberdinetatik bananduak egon dira baina orain da unea denak elkarrekin egotera itzuli direna. Zure bihotza eta sentimenduak garbiak dira, ziur naiz kutxekin egokiena egingo duzula. Zuretzako dira guztiak, ile kixkur, hala nola nire maitasun osoa."

Begi ederrek isuritako negar malko batek neskaren aurpegia zeharkatu zuen. Bere aurrean zeuden kutxa guztiak irekitzeari ekin zion une horretan bertan haize-boladak eta argi-pirrinta gozagarriak etxola hartu zuten ...

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA KALABAZAN
ETA AGER DADILA PREMIÀ DE DALT-EKO PLAZAN !!!

Jon Gaztelumendi Uribarren
1961
Orereta

1986an atxilotu zuten. Gaur egun Puerto 1ean dago preso. Haizea mindu gabe liburua argitaratu zuen 1999an.

C.P. Puerto I
Apdo. 555
Ctra. De Jerez-Rota, km 5.
11.500 Puerto de Santa María
Cádiz.

Abenduaren begien aurrean

Berarekin egona zen bost minutu lehenago, ezta bost ere. Baionako kale estu hartatik zihoan beste bi lagunekin taberna hartara bigarren aldiz. Autoen argi horiek laban egiten zuten asfalto bustian eta hala ohartu zen gaua iritsi zela goitik, euria eta haizea datozen lekutik. Iristear zeudela oihu bat entzun zen, tximista baten adar galdua, ikaratua kalearen alde batetik bestera... Oihu hura entzunaz batera hasi zen lasterka; eta kalea ere lasterka. Tabernaren parera iritsi eta beirazko atea zabaldu zuenean, lagunaren gorpua lurrean etzanik ikusi zuen barraren muturrean; pausoak zenbatzen hurbildu zitzaion. Belaunikatu eta burutik heldu bitartean, hortz artean trabatu zitzaion esaldi baten hasiera; hilda zegoen laguna. Kazkezur zulatutik isuri zitzaion bizitza, gorria eta ugaria, baldosen gainera. Mostradorearen ixkinean hilotzak piztutako zigarroa bizirik kea zeriola, baina azken arnasa erretzen... Tabako gorriaren lurrina bolbora usainarekin nahasirik lanbro trinkoan, hezetasunik gabe. Zutitu zen. Baldosen gainean bala-zorro haiek nonahitik eta jende multzoa oihuka entzun zuen orduantxe kalean, polizia taberna barrura sartzen zen bitartean; eta galdutakoa berreskuratu nahaian atzeraka denbora, alperrik. Ahal zituen datu gehienak bildu eta tabernatik irten zen, gertatutakoaren berri eman eta xehetasunak komentatzeko asmotan, baina xehetasunentzat lekua egin gabea zegoen oraindik lagunen erneguan. Itsasgora karrika errefuxiatuz betetzen, ezusteko min uholdea abenduaren gauan. Hurbileko lagunen premia somatu zuen bat-batean. Aldarrikapenek, lehen orduko anabasak, amilka eraman zuten karrikaren beste muturreraino eta ezagun batzuk agurtu zituen espaloi isilen gainetik, erakusleihoen argiak ere hiltzear zeudenean, edo, begi haiek, itzaletara ez ote zeuden jarriak...

Tabernara itzuli zen eta karrikek muturrera eramaten zuten berriro ere, abixu bat zela, manifa baten imintzioa giza-taldean. Abenduari begizuloak eta neguaren bizkarra makur. Euririk ez, baina ura lainoetatik jakinminez jaisten zen gelditzeko. Aberriaren semeak bost tiro eta bostak buruan; Aberriak mereziak ditu, Espainiarentzat, bost edo hamar tiro, bizi delako soilik... Ez zuen ubiderik aldatu Errobi ibaiak eta ezin urek beste ibai bat sortu; hotz, hotzegi onartu zuen bizitza hark eskeintzen zuen patua. Eta

antzeko pentsamendutan ari zela ezagun bat hurbildu zitzaion, hildakoaren gurasoak iritsi zirela eta laguntzeko behar ziren zereginetan, edo antzeko zer edo zer...
- Gurasoak hemen zeudek, joango al haiz beraiekin egotera?
- Noski, berehalaxe noak.
Eta Perfekturara jo behar zutela tramite batzuk egitera edo antzeko zerbait...; ez balitu ur-korronteak zenbait esaldi eraman!

Zenbatetan gertatzen den antzera, minutuen egonaldiak betikotasuna dakarrenean, gurasoak agurtu eta haiekin, irreala zirudien hirian; paper ilun itsatsia zeruaren sabaian, gaua: dena egia ote zen? eta zeintzuk ziren bere amaren galderak... Inoiz amaitu ziren inorako joan-etorriak, gestio txar haiek, eta etxera erretiratu ziren.

Baionako etxeko zaharra, egurra eta argizaria, historiaren eltze-itsu, iheslarien teilatupea. Egongelak egurrezko mahai handi bat zuen eta bonbila kozkor baten ardura zen dena argitzea, eta ezinezkoa zitzaion. Mahai inguruan eseri zen, beltza mahaia, oihanaren oinetatik erauzia; ez zegoen beste inor egongelan. Atetik etxeko alaba azaldu zen kaferik edo nahi ote zuen galdezka...

- Kaferik nahi? Gaua hemen pasatuko duzu, ezta?
- Bai, atera ezazu kafe pixka bat, hemen gelditukо naiz, inora joateko berandu da eta lotarako ere ez gaude.
- Ederki, oraintxe nator… æ doinuak xuxurletan egokitzen.

Gauerditik aurrera zamak atzean utzita arin ordua. Kafearen lehen lurrinak sukaldetik eta haiekin batera lagunaren aita egongelara, berak ere kafe hartuko lukeela esanaz…
- Kafea hartuko diagu. Ez dik samintasunik bigunduko, baina...
- Bai, kafetxo bat hartuko dugu eskuak epeltzeko bada ere.
Ez zuen elkarrizketa jarraitu aitak. Aurrean zuen gaztea behatzen eta mahai beltza ukituz, esateko eta isiltzeko zeudenak leihan baleuden. Eta hasi zen hizketan, kaferik gabe eskutan, ospitalean edo antzeko eraikin batean egonak zirela...

- Gogorra egin zaidak semea hala ikustea, oso gogorra. Aurpegia besterik ez zian ageri..., maindirea bezain zuri.

Aurpegira eraman zuen esku bat aldi berean, zirkulu bat marraztu aidean, begi ondoko zimurretan atxikiak irudiak. Lagun ziezaiokeen deskribapena osatzen, baina isilik jarraitu zuen gazteak: esaldiek irudi eta irudi oso zuri. Mahai gainera ekarri zuen aitak beso akitua eta gorputz osoaren euskarri egin zen, hartan, kafea mahaian utzi eta desagertu zen etxeko alaba. Azukrea bota, eragin mahai koloreko kafe beltza; euria teilapearen kontra, kikara eta koilaratxoaren arteko txilin-hotsak. Erloju zaharretik sartu zen denbora eta bitan eman zituen orduak. Gizona, txapela burutik kendu gabe artean, hizketan hasi zen orduan, gaztetatik inkonformista azaldu zela beti eta...
- Malezi gabekoa..., pentsatutakoa esan eta esandakoa..., egin.

Burutik mihira esaldiak, bizitzaren pasarteak ahotsaren doinuan erortzen utzi; maitasunaren itturrira itzuli eta ezin busti. Kafeari zurrupadatxoa, zenbait oroimenetan porturatu, itsasoratu ostera; semea ilbetearen ozeanotik ekarri etsipenik gabe. Eta haurtxoa semea, mutiko eta gaztea gero, erloju zaharrean laurak entzun zirenerako; erloju zahar oroimen jalea.
- Gogoan diat oraindik… ola hurbildu zitzaidaan arratsalde hartan - gaztea isiluneen entzule ere bilakatua -, "Joan beharra daukat aita", joan?, nora joan behar duk ba, esan nioan… "Euskal Herriarengatik borrokan ari naizelako joan beharra daukat",…halaxe erantzun zidaan… - gorputza aurrera botata gizonak - Euskal Herriarengatik borrokan…

Aldeetara higitu zituen begiak, txapela buruan egokitu; haizearen modukoa oroimena. Sentimentu orbelduak airean jirabiraka eta mahaiaren orpoan metatzen…
- …Iparraldera jo behar zuela eta, agurtzen. Hain larria ote zen galdetu eta… baietz erantzun zidaan, azalpen handirik gabe.
Azken esaldiak doi-doi entzun zituen gazteak; hurrengoen zain adi.
- …Herriaren alde dena emateko prest zegoela esan eta… besarkatu egin nindian; joan zuan. Hutsune handia sentitu genian etxean, … hutsune handia.

Esaldiaren amaieran gelditu zen gizona, pentsakor-antza, eta errekaren ibilgua urik gabe irudikatu zuen gazteak; gizonaren ahotsak egongelan barreiatu zuen imajina.
- …Ezustekoa bai, baina gure errespetua izan zian hasieratik - gaztearengan finkatu zituen begiak eta begi argi haien bidetik zetorren egunsentia, tristatua.
- …Dena ematen duenari errespetua zor zaiok… - jarraitu zuen -; hil berri duten semeak gure maitasuna ere bazian.

Erloju zaharraren pauso ozenak nabaren, tik-tak, tik-tak, orduak hegan eta gizonaren apaltasuna hondo gabeko amildegia. Kikara txuriak mahaian uharte, haietan erreparatu, gogortutako kafe hondarretan, eta okindegitik zerbait ekartzeko prest azaldu zen gaztea. Zutitu zen.

- Bai, hoa - erantzun zion gizonak -. Galdera bat egingo diat - esan zuen -, hi ere gerran al habil?

Gezurrik ezin esan, edo esaten jakin ez, eta buruarekin baietz erantzun zion. Bat-batean zutitu zen gizona orduan eta gaztea besarkatu zuen bere beso handi haiekin. Ez zuen ezer esan.
Etxetik atera eta eskaratzean gelditu zen. Ez zuen euririk ari, baina karrika osoa potxingo gris bat zen goizabarraren argi herabetian. Bai, gerran zebiltzan, zioen gazteak bere kautan, eta antzera hilko balute bera, besteren batek entzungo lituzke erloju zaharraren eleak? Berokiaren lepoa altxa eta joan zen kale bakartiaren barrena; urratsen soinua leuntzen atzetik itzala eskuak sakelean zituela.

Guallapu

Guallapu deitzen genion, bere izena ordea Juan Angel zen. Tenerifeko espetxe zaharrean zahartzen ari zen hamazazpi urterekin. Ikusi egin behar zen espetxe hura! Aguretuta zeharo, oroimena galduta zahartzaroak jota. Ez zirudien espetxea zenik ere, baina espetxea zen. Ez zeukan ziegarik, oheek, elkarren ondoan jarrita, gela handi bat betetzen zuten, eta hari brigada deitzen zioten.

Lapurketa txikiak batuz ez zuen lapurketa handirik osatu Guallapuk eta ez zen aberastu. Lapurketa txikiak batuz espetxe zigor luzea metatu zuen Guallapuk. urte bat beste, bestea hasi, ilea eta bizarra luzatzen utzi zituen inguruaz izkutatzeko.

Abenduaren 28an kartzelarien bulegotik deitu eta hara joan zen Guallapu. Bulego barruan bost kartzelari zeuden mutu, eta batek esan zion, ''Zure gauzak bildu oraintxe eta zatoz lehenbailehen, askatasunean zoaz''. Guallapuk ez zuen hitzik egin. Gora joan, makuto kaxkar bat erdizka bete, kamixeta garbi bat jarri eta bulegora bueltan zetorren, irrati zahar bat bidean gurutzatu zitzaion bati eman zion, baina beti isil eta urruna.

- Hemen nago!!
Kartzelariek barreari ezin eutsirik zebiltzan…
- Hi haiz inuxentea!
Eta barrez lehertzen hasi ziren bostak.
- Inuxente eguna da gaur!!
Zalaparta eta barre haien gainetik Guallapuren biraoak entzun ziren eta kartzelariak ofenditu egin ziren. Arrastaka eraman zuten isolamendura, espetxearen leotz ilun eta bakartienera.

Gaua bat

Sareka botako ditut.
Zerbait bildu nahiko nuke
ordu bare hauen
itsasoan.

Gaua bi

Gazia da gau zabala.
Flexo baten argiak
zehazten du kosta.

Gaua hiru

Metafora bat ito da
gauetik atera orduko.

Igurtzi zuen hezetasunak hazia

Igurtzi zuen hezetasunak hazia
baina han basamortuan
Goizeko ihintza
ez zen nahiko izan
hazia hozitzeko
Euria iritsi zen gauez
hiltzera zetorren harera
presati gainera
baina han basamortuan
heriotz hura bizia zen
hozitu baitzen hazia
eta haren garrasia
koloretan entzun zuen
bertako paisajeak

Basamortu ikusgarria
inoren begietara eder

Enrike Letona Biteri
1961
Arrasate

1987an Frantziako jendarmeek atxilotu eta Espainiako guardia zibilaren esku laga zuten. Preso dago ordudanik.

Prisión provincial de Murcia
Apdo. 796
Ctra. Palmar a Mazarrón, km. 4
30.071 Murcia

Jarrera

Sakabanaketak Atzera eta aurrera eraman ditu Euskal Preso Politikoen Kolektiboko partaideak. Ez da erraza izaten lagunen babesa utzi eta beste esparru batzuk konkistatzen irtetea. Eta konkistatu aditza erabiltzea otu zait Galindo jeneralak erabili zuelako bere epaiketan. Bera bere sei gizonekin Hegoamerika osoa konkistatzeko gai izango omen zen. Zer konkista dezake bere ekintzak onartzeko gai ez den pertsona batek? Lelokeriak lelokeria nire konkistak ez dakar inor menperatzea, norberaren kanpo zein barne esparrua bilatzea baizik. Izan ere, alor ezezagunetara eramaten zaituzte eta onartu ezinezko jarrera bat inposatzen saiatzen dira. Horri guztiari aurre egitea ez da erraza izaten. Alde batetik, etsaiaren indar fisikoa dago jipoien eta zigorren laguntzarekin eta bestetik, norberaren burua ondo ezagutu behar da bide horretan noraino joan daitekeen ondo neurtzeko. Eta ondo neurtu behar dela diot, jarrera batetik eratortzen diren gaixotasun psikikoak gaixotasun fisikoak baino askoz gogorragoak baitira sendatzeko. Sarritan itzulezinezkoak bilaka daitezke, beraz, inolako zalantzarik gabe, ondo kontrolatu behar dira.

Hasierak izaten dira beti gogorrenak. Kartzelariak ez zaitu ezagutzen eta komunikabideetatik jasotako informazioa besterik ez du ikusten bere aurrean: basati arriskutsu bat, edozein hutsegitetan jauzi egingo dion animalia gosetia. Beraz, zirkoan bezala, lehen egunetik erakutsi behar zaio animalia basatiari nork agintzen duen kaiola barruan.

-Zure ziegako atea zabalduko dizudan bakoitzean zutik jarri behar duzu ziegaren hondoan eta esku ahurrak erakutsi behar dizkidazu –hauek dira gutxi gorabehera leku gehienetan entzuten diren lehen hitzak.

Zer egin honen aurrean? Bakarrik egongo banintz, ziur asko nire burua makurtu beharko nuke baina ez nago bakarrik. Kolektibo bat osatzen genuen eta dugu, eta laguna ikusten ez dudan arren, badakit hor nonbait dagoela pareta batzuk urrunago, eta badakit nire jarrera bera izango duela, indarrik baldin badu gutxienez. Beraz, nire burua aztertu ondoren erabakitzen dut nahikoa indar daukadala eta egoerari aurre egin behar diodala.

Hurrengo goizean zaindaria etorri denean ohean nago. Atea zabaltzeko bere giltza lodiarekin burdinazko atea jotzen hasten da indartsu, altxatzeko esaten didan bitartean. Ez diot kasurik egiten, nahiz eta bista kentzen ez diodan, zer egingo duen zain.

-Altxatuta eta ohea eginda izan behar duzu –hasi da esaten.
-Ez dut inora joan behar, beraz, ohean jarraituko dut –entzun duenean, lagunekin etorriko dela esanez mehatxatu nau eta danbateko handi batez itxi du atea.

Norberak ere jauzi txiki bat egiten du horrelako hots baten aurrean, nahiz eta prest egon horrelako gauza baterako, beti egiten baitute gauza bera. Mehatxua ere hor dago eta badakizu etorriko direla. Ikusi egin zenbat datozen eta zein jarrerarekin.

Hor datoz, oinetakoak sumatzen dira eta gutxienez hiru edo lau dira. Atea zabaldu da eta ziegara sartu dira hiru. Laugarrena atean gelditu da. Deus esan gabe mantak eta izarak kendu eta ohetik atera naute jarrera txarrean. Biluzik egiten dut lo eta badirudi nire biluztasunak ezeroso jartzen dituela. Beste batzuetan oihu handiak egiten dituzte beldurtzeko.

-Zuretzat ez al zen errazago izango altxatzea esan dizudanean? –esan dit ordu erdi lehenago bakarrik etorri denak.
-Ez nabil erraztasunaren bila, duintasunaren bila baizik. Erraztasuna bilatu izan banu, zuk zer uste duzu, espetxean egongo nintzatekeela? Ez, jauna, askatasuna bilatzeak ekarri ninduen espetxera eta hemen ez dut nahi galdu duintasuna. Garbi dakusat zuretzat ez dela erraza izango kontzeptu hauek ulertzea, baina zer nahi duzu, bakoitzak bereari eutsi behar dio.

Batzuetan amore eman behar izan dugu garai hobeen zain. Burua makurtu behar izan dugu behin baino gehiagotan, baina beti indarra eginez buru hori tente mantentzeko. Gauza txiki hauengatik zigor handiak ordaindu ditugu: jipoiak, tentsioak, gose grebak eta orduak eta orduak ziegako bakardadean.

Edozein modutan, ziegatik ateratzea ez zen izaten erraza lekua askotan. Lehen graduan geunden eta mailakatze horretan legearen arabera arakatu egin behar zaituzte ziegatik ateratzerakoan. Sistema asko daude, baina sakabanaketen hasieran biluztu gintezen nahi zuten. Guk uko egiten genuen, esanez arakatu nahi bagintuzten ekartzeko erraketa bat eta kito. Leku askotan asteak eta hilabeteak pasatu dituzte lagunek ziegatik atera gabe, biluztea onartezina zela uste zutelako. Eta inork ez dezala pentsa uko honen atzean lotsa ezkutatzen denik. Inola ere ez! Jarrera horrekin presoa umiliatzea bilatzen da, adierazten zaio men egin behar duela eta hori, jakina, onartezina da. Gauza horiek irabazi egin dira apurka-apurka nahiz eta leku batzuetan tarteka berpizten saiatzen diren, probatu nahiko balute bezala zerbait aldatu ote den kolektiboan pertsonak aldatzen direnean. Eta behin eta berriz tronpatzen dira!

Orain dela urte batzuk itsasontziko ziega batean zihoazen kolektiboko bi lagun. Salto del Negro espetxe ospetsura zeramatzaten eta egunkarietan hainbat aldiz azaldutako izen madarikatu horrek nolabaiteko kezka sortzen zien. Itsasontziaren balantzak ere zerikusia izango zuen eta are gehiago hain hondoan joateak, baina horrez gain, espetxe berria zen beraientzat eta ezezagunari beti diogu nolabaiteko begirunea. Beraz, errespetua, beldur pixka bat izatea, komunikabideen eragina eta ezezaguntasuna koktel gordina izan daitezke.

-Ikusiko dugu nola doazen gauzak. Sarreran konturatuko gara zein jarrera daukaten. Jipoi bat jaso behar baldin badugu hasiera-hasieratik jasoko dugu, baina garbi geratuko zaie ez gaudela amore emateko prest –esan zion Xabierrek Mikeli.
-Gu beti bezala aurrera –erantzun zion Mikelek, baina besterik gabe horretan gelditu zen guztia.

Espetxeko sarreran hainbat kartzelari zeuden bekozko ilunaz eta hatzaztarnak hartu ondoren hainbat galdera egiten hasi ziren. Hauen guztien erantzunak zurekin doan dossierrean doaz, beraz, ez du izaten zentzu handirik galdeketa horrek. Beste gauza asko bezala, hasiera-hasieratik nagusiak eta menpekoak bereizteko formula bat besterik ez da. Gauzak

garbi geratu behar dira, bestela errespetua gal daiteke. Beraz kartzelariak galdetu eta presoak zintzo-zintzo erantzun.

Baina egun txarrak ere badira eta bero harekin egun bi itsasontzi baten hondoan pasatu ondoren gure lagunak ez zeuden ziur asko lelokeriatan ibiltzeko moduan. Beraz, kartzelariak galdetu zionean Mikeli:
-Zure lanbidea zein da?
-Toreroa naiz –erantzun zion honek irribarretsu.

Ikustekoa zen nola jarri ziren. Pena ez izatea argazki kamara bat. Han zeuden gure lagunak hainbat egunetan garbitzeko ere aukerarik gabe, praka motzetan eta alkandora koloretsuekin. Biek kapela buruan eta gose greba baten ondorioz mehar-meharrak, hezurra besterik ez.

Bat-batean mundu guztia oihuka hasi zen. Zaindariek zioten zer zen errespetu falta hori. Besteak erantzun zion ea zer axola zitzaien zein zen bere lanbidea. Eta horrela jarraitu zuten iskanbila zaratatsuan. Ez zen izan prestatua zegoen zerbait, horrela atera zen eta kito.

Zerbitzu burua etorri eta apurka-apurka lortu zuten giroa pixka bat baretzea. Baina galdeketa bertan behera utzi izan balute non gelditukо zen aginte katea? Beraz, Xabierri galdera bera egin zioten:

-Eta zure lanbidea zein da?
Eta Xabierrek serio-serio erantzun zion:
-Ni horren banderilleroa naiz.

Ikustekoa omen zen nola aztoratu ziren berriz ere errespetua jartzeko zeuden gizontxo haiek.

Aurki ezazu

Behin batean izadian ikasi nuen
erotismoari buruzko lehen ikasgaia.
Udazkenak emeki-emeki, orriz orri
zuhaitzak biluztu zituenean
ardaxka haietako dardara nabaria
sentitu nahi nuen maiteñoaren haragian
banan-banan, poliki-poliki, gero eta azal gehiago
airearekin kontaktuan gelditzerakoan.
Eta bere dardara
nire urduritasunarekin bat eginez
txinpartak sortzeko
indarra izan zezan nahi genuen
atseginzaletasuna elikatuz gain
aseezina bilaka zedin.

Badago zer sendatu

Ez nuela gorrotatzen esan nien,
eta ez zidaten sinetsi.
Ezjakintasunetik alde egiten saiatzen nintzela
eta arraro begiratu zidaten.
Banatu gabe ez nuela ulertzen poztasuna
eta ulertezintasuna marraztu zitzaien ezpainetan.
Orduan azaldu behar izan nien
gorrotoa, ezjakintasuna eta bekaizkeria
zoriontasunaren etsaiak zirela,
eta ni, ororen gainetik, zoriontsua nintzela
eta zoriontsu izaten jarraitu nahi nuela.
Orduan psikiatrarengana eraman ninduten
espetxe-urteen eragina aztertzeko,
eta psikiatrari esan nion bere lanean ona bazen,
neoliberalismoa sendatzeko.

Bakardadea eta biok

Sartu berri,
bakardadea aurkitu nuen espetxean
eta izutu egin ninduen.
Txiki erraldoia, oso berea eta
zuriz jantzita zegoen.
Zaratatsua ni,
hain isila bera,
aldatuz joan ginen biok.
Berak dizkit orain istorioak kontatzen
adi entzuten diodalarik nik.
Belauniko begiratzen nion lehen
lepotik helduta goaz orain.
Eta behin baino gehiagotan,
elkarrekin dantzatu dugu
gau ilargitsuetan.

Iñaki Gonzalo Casal
1964
Getxo

1994 urtean atxilotu zuten. Gaur egun Dueñaseko espetxean dago.
Hainbat liburu argitaratu ditu: "Carta a un fantasma" (1997), "Hace frío aquí en España" (1998), "Nadine" (2000), "La barca de Amín" (2002).

C.P. La Moraleja
Ctra. Local P-120
34.210 Dueñas
Palencia.

Colarme como un ser de otro mundo
en tu mirada triste.
Y allí quedarme
para secar todos tus llantos.

En esa mirada que nace y muere
y pasa de largo.

No dejar que muera
esa luz que hice nacer
en tu mirada triste.

Conocerte ha sido conocer
un puro instante bello.
Y olvidarte no podré
si quiero seguir viviendo.

—
Un solo aroma me recuerda
retazos de la infancia que no pude vivir
cuando fui niño.

No todos los aromas son recuerdos
ni todos los recuerdos aromáticos
dibujan puntos de luz en mi pasado.

De los que hablo,
en los aromas que nunca han sido,
me detendré un instante.

Para que se vuelvan eternos.
Para que sean inmortales.
Para que nunca mueran.

En ellos me detendré un instante,
por ver si existen,
por saber si su-nunca-escrita-muerte
me da la vida.

No son aromas de flores
junto a una verja de madera blanca,
ni de pasteles de cerezas
bajo un sueño de cerezas estrangulado.

Ni son aromas los míos
de toda una noche sin dormir
sorteando los arañazos del desván,
ni los del golpecito en el hombro
y la sonrisa bonachona
de una vieja gorda
que esconde los caramelos
en su bolso de paja.

De serlo nunca hubieran permitido
que volaran mis aromas y escaparan
de mi caja de puros.

—

De nada sirve que tenga unos preciosos ojos azules
justo debajo de dos cejas ni muy pobladas
ni muy finas,
y que tenga la nariz con dos aletas
en medio de dos pómulos ligeramente abultados.

No es suficiente que sus labios se perfilen
sobre una barbilla redonda
y un gracioso holluelo,
ni que su cuello sea tan esbelto
como el cuello de un cisne,
ni que sus pechos despunten tentadores
bajo sus siempre ajustadas camisetas blancas.

¿Qué importa que tenga una voz aterciopelada
y que silbe las eses e insinúe las vocales?

De nada sirve que la mujer que veo todas las
mañanas caminando como si flotara
sea la mujer que ha poblado todos mis sueños…
si se llama Estrella y lleva el doscientos cinco
en su placa de funcionaria de prisiones.

—
Callejeo un tramo de mi pasado
junto a tus ojos abiertos como puertas.

Cruzo la calle-y-ojeo
cada una de tus poses.

Mil seiscientos días torturado,
callejeando los opacos pasadizos,
de mano en mano,
manoseado.

Sólo al trote
bufan los carceleros
como perros callejeros.

¿Quién dijo que la letra temblorosa
de un pronto dejará de estar entre
nosotros
hace legal el testamento
del callejeador de la Avenida Salsidu?

Cada letra de tu nombre
es como un mapa callejero,
imposible descifrar…
si estás muerto.

Ahora que eres una puta
¡vamos a callejear juntos!

Volveremos mañana
a ser los mismos estúpidos sumisos
que se citan en los callejones
y se besan de espaldas a la vida.

Que me pregunten si quiero
morir como el poeta
o prefiero combatir
hasta el final por la vida.
Por la vida que no es vida
si nace para ser muerta,
que no es vida si la sangre
le cubre desde la cuna.
prefiero morir sabiendo
que los vivos no se mueren
sin antes haber nacido.

España no tiene nombre,
No tiene nombre España.
No tiene nombre quien mata
a otros hombres en su nombre,
ni tiene nombre quien cubre
de sangre los arrabales.
España no tiene nombre,
no tiene nombre España.
Es un pasillo de muertos
que lloran y se desangran.
Son los muertos de una España
que sin nombre se levantan
para vengar en su nombre
a los muertos de mi Patria.
No tiene nombre esta España
de roja bandera ámbar,
de amarillos campos resecos,
de noches sin luna llena.
No tiene nombre quien sabe
que los nombres no se venden,
que no se compran los nombres,
que los nombres se levantan
y se yerguen en banderas.
No, España no tiene nombre,
no tiene nombre esta España.



Iñaki Rekarte Ibarra
1971
Irun

1992 urtean espetxeratu zuten, eta egun Puerto 1 espetxean dago.

C. P. Puerto I
Apdo. 555
Ctra. De Jerez-Rota, km. 5
11.500 Puerto de Santa María
Cádiz

Andrea Bocelli

Ainhoak, arratsalde anitzetan, walkamean Andrea Bocelliren zinta ezarri eta espetxeko teilatuak libre uzten duen zeru zatitxoan askatzen ditu begiak. Noizean behin hegazkinak igarotzen dira, oso urrun. Hegazkinak eta bere artean egon daitekeen distantzia kalkulatzen saiatzen da txori erraldoia begien ondotik igarotzen denean, aske dagoen zeru zatitxora barneratzean. Hegazkin barrukoak irudikatzen ditu gero; "horiek ere barruan - pentsatzen du Ainhoak -, munduan , bai, baina barruan". orduko Andrea Bocelliren birikak lehertzear daude. Hegazkin barrukoak, pilotoa barne, berak Andrea Bocelliren musika entzuten ari den gisara, topera, entzuten dutela irudikatzen du.

Hor goitik halako zerbait entzutea zirraragarria izan behar dela iruditzen zaio ziegako leihotik begiratuta;"eta musika barrutik baino, kanpoko aldean sortu dela ohartuko balira? - galdetzen dio Ainhoak haizeari - Batbatean, motorrek eta ezerezaren urratzeak sortzen duten zaratots ikaragarria desagertu eta dena Andrea Bocelliren melodiez bete, ingurua, zerua, unibertsoa…" gero bidazti bakoitza nondik datorren eta nora doan asmatzen saiatzen da, sinetsiz bidaztiren bat gehiagotan igaro izan dela bere ametsetan musika eskeini dienean hegazkinei… "Zoriontsuak izango dira? - xuxurlatzen du Ainhoak - Edota, jende gehienari gertatzen zaion bezala, erabat estresatuta bizi dira? Ez dakit…"

Puntu horretara iristen denerako hegazkinak utzitako ke arrastoa baino ez du ikusten, hau ere segundu gutxi batzuetan zeruaren urdintasunean difuminatuz.

Azkenean enarak baino ez dira geratzen. Enarak beti jolasean bizi direla iruditzen zaio, haiengan askatasunaren metafora gertuena asmatuz. Une horretan enara izatea desiratzen du, Ainhoa izateari utzi eta enara bilakatu, Andrea Bocelli entzuten duen enara. Baina segituan konturatzen da enararena aitzakia baino ez dela, unearen behin-behineko apeta. Enara bost minutuz izan nahiko luke, edo gutxiago, handik, lotuta duten leku hartatik ateratzeko beharko lukeen denbora baino ez… gauzak ez dira

horrela, esaten dio Ainhoa errealistak Ainhoa ameslariari, enara izango bazina askatasun horren ondorioa ordaindu beharko zenuke, ezin baita larroxa bat hartu arantzen arriskua ezagutu gabe…

Baina alde ameslariak baietz, beti bezain burugogor, bere mundu magikoan sinesten, inolako araurik ezagutzen ez duen askatasuna existitzen dela ziurtasun osoz baieztatzen, askatasuna une bakoitzean forma ezberdina hartzen duen errealitatea dela…

Iragana neurrian handituz, enarak desagertu eta zeru izartsuarekin topo egiten du Ainhoak. Noizbait Maya Herriak unibertsoa begiratzeko, ulertzeko, eraikitzen zuen piramide haietako batean gaua eman nahiko lukeela pentsatzen du, haien magia sentitu eta… Sorbaldan esku bat sentitu du Ainhoak. Segundu erdian unibertsoa kanilatik kanikak bezala desagertu da. Walkmana begiratu eta Andrea Bocelliri atsedentxo bat eman dio. Buelta eman eta kartzelari bat ikusi du; zerbait esaten ari da, ez dio ongi ulertzen, ordu erdia omen darama atea burni batez kolpatzen… ez dela mugitu… preso kontaketa egiten ari dela… mugitu behar dela… Edo antzeko zerbait. Ainhoak berriro begiratu du walkmana, "play" botoia zapaldu eta, "Andrea Bocelli!" erantzun dio kartzelariari izarrek urratutako zerua begiratuz.

Natura

Maddi espetxeratu eta lehenengo astean, Alcala Mecon, elurra egin zuen. Elurra beti liluragarria iruditu zitzaion, baina orduan xarma berezi bat antzeman zion. Ikastolarik gabeko egunekin harremantzen du elurra, aitaren ehiza egun oparoekin, jolas unibertsala den elur bola jaurtiketarekin, ahizparekin jolasean emandako garaiekin… Orduan ez zekien berriro elurra ikusteko sei urte igaro beharko zirenik. Madrilgo espetxe batean izan zen berriro, Soto del Realen. Izugarrizko elurtea bota zuen, irratien esanetan azken hogei urtetan egondako elurte handiena, baina kasualitateak aste hartan Maddi ziegan txapatuta egotea nahi izan zuen. Begiekin besterik ezin izan zuen dastatu ia eskura zuen elurra. Elurra berez hotza dela pentsatzen zuen Maddik, nahiz eta berak hotzarekin ez harremandu. Patioan zeuden presoak jolasean ikusi zituen umetxoak bailiran, bera hantxe, errekreorik gabe geratutako ikasle bihurria bezalaxe. "Elurrak ekarpen berezia dauka pertsonengan", pentsatu zuen ziegako leihoa itxi aurretik.

Harresien artean urte batzuk eman ondoren naturaren falta gero eta nabariago sentitu zuen. Badajozeko espetxean zegoela, isolamenduan, goizero ateratzen zen patio txikian bizi zatitxo bat aurkitu zuen; patioko zoko batean ozta-ozta eguzkia besarkatzen zuen belar mataza bizi zen. Belar haiek une hartan eskura zeukan natura arrasto bakarra zuen. Goizero, ezari-ezarian, kokoriko ezarri eta ihintzak bustitako belarrak bere buruko ileak bailiran laztantzen zituen. Bestetan, zatitxo bat hartuz, ez handiegia, usaindu, dastatu, egiten zuen. Egunero patio txiki hartara atera eta lehenengo soa lau belar haientzat gordetzen zuen Maddik. Goiz batez, eskuarki baino beranduago ireki zioten ziegako atea eta patioko atetzarra gurutzatu bezain laster "lapurra" goitizeneko kartzelaria ikusi zuen alde batera, irribarre ergelaz berari begira, eskuartean aitzurra eta belar matazarekin. Maddik ezikusiarena egin eta goizero bezala patioan bueltaka hasi zen. Beso bat ebaki izan baliote bezala sentitu arren, kartzelariak ez zuen Maddiren bisaian inolako tristura keinurik antzeman, agian horregatik bere poztasunaren azpian etsipen pitin bat ere nabari zitzaion. Aste batzuren buruan, hala ere, belar berriak atera ziren patio-

ko zoko berean: "Aupi Maddi!" agurtu zuten iritsi berriek, "adi ibili hauekin!", adierazi zioten haize epelak lagunduta.

Puertoko espetxean antzeko zerbait gertatzen da pikondotxo batekin: mila aldiz moztu dute eta aldiro berpizten da. Pikondotxoa auskalo noiztik bizi den bertan, ziur aski ingurua espetxearekin pozoindu aurretik, beraz, zergatik bere lurra utzi? Pikondotxoak antzeko zerbait pentsatzen duela uste du Maddik.

Natura leku anitzetan aurkitzen ikasi du. Batzuetan orduak ematen ditu zerura so; alde batetik bistarako ona zela esan ziotelako, bestalde, zerua naturaz beteta dagoelako. Maddi Puertoko espetxean eduki zutenean mota ezberdineko hegaztiak ikusi eta denborarekin haien izenak ikasi zituen. Goizean ikusten zituenak antxetak eta akioak zirela jakin zuen, tarteka ahateren bat ere, batzuetan antzarrekin okertzen bazituen ere.Arratsaldean, berriz, lertxuntxoak eta flamenkoak, besteak beste. Hegaztiak, presoek ikusi ahal izateko espetxe gainetik igarotzen zirela aipatu zion behin lagun bati gutunean.

Duela egun batzuk ziegako leihoan jarrita euria ikusten egon zen. Andaluzian euria egitea ez da egunero gertatzen den zerbait, pentsatu zuen. Halako eta bestelako pentsamendu nahasietan galdurik zebilela, "kontxo! - esan zuen - Euri tanta, hortxe dago koxka!". Euri tantak patiora erori bezain laster desagertzen zirela konturatzen zen, edonondik zirrikituak aurkitzen zituztela handik ospa egiteko, leku hartan behar baino denbora gehiago ez egoteko.

- Nekez atxiki leike ura - esan zion aldameneko ziegan zegoen presoak, leihotik begira bera ere -. Lurretik ez bada, zerutik izango da, baina mundua ezagutzen jarraituko du. Auskalo hemen eroritako euri-tantak nondik zetozen, non dauden...
- Aske! - moztu zion beste leiho batek.
- Bai!…

Desiratu zuen Maddik.

Por el buen orden del establecimiento

Tropelean sartu dira isolamendu modulura. Hamar kartzelari dira, presondegiko zuzendaria haien artean. Patio, isila, hutsik balego bezala dago, monotoniaren monotoniak irentsita; duintasunaren garraxia. Izkin batetik ingurua zehatz mehatz aztertzen dabil zuzendaria. Bat-batean, bisai zaharkituan alarmaren aldizko argi gorria islatu zaio eta beste kartzelari bati, sorbalda gainetik begiratzeko keinua eginez, agindua eman eta kartzelariak preso bati garraxi batez bereganatzeko agindu, honek ere, eta hogei segundu barru, presoak, erratza eskuartean, leiho apal batean dauden ogi papurrak eta urez betetako marmelada terrinatxoa zakarrontzira bota du, zerbait ulertzeko inolako betarik izan gabe. Ondoren, zuzendariak hasierako bisai itzalia berreskuratu eta buelta eman du tropelean alde egin dutenean.

Teilatutik bi txori patiora begira geratu dira; egarriz... gosez... harriduraz... Auskalo!

Xanti Iparragirre Perurena
1934
Orereta

1981 urtean alde egin behar izan zuen etxetik. Lapurdin bizi da, erbestean. Biziaren Azala liburua argitaratu zuen 1998an.

Ni ez naiz gerraren zale (1989)

1)
Ni ez naiz gerraren zale
horren jakinean zaude.
Urteak balan pare
etxetik urrun gaude,
buru bihotzak ozpinez
eta noiz arte jakin ez.

2)
Herrian nahi nuen bizi
baina joan behar ihesi.
Lotura danak hautsi
guztia bertan utzi;
buru bihotzak minbera
esku hutsik nunbaitera.

3)
Egunak luze badira
urteak laster joan dira
urrunetik begira
utzitako mendira
ezin dut aurkitu pozik
ametsetan izan ezik.

4)
Lehen lan askotan sartua
nire buruaz ahaztua
orain erdi nahastua
barru dena hustua
sator zulotik begira
galdezka,nun ote dira?

5)
Behar zuenai lagundu,
hortan ez naiz lo egondu
tresna guztiak kendu
mila zakurrez zaindu;
orain sator baten pare
zulotik atera gabe.

6)
Ametsetan gau ta egun
noiz irtengo ote dugun
ixilik eta ilun
bakardadea lagun
zu, jarraika zatozena:
zutan dut itxaropena.

Borda zaharrean

1)
Euskal Herriko xoko batean
Nafarroaren ipar aldean
mendi gailur bi bistan direla
eskuin Baigura ezker Iparla
bien erdian ni ametsetan
bihotz minean esku hutsetan
gorantz begira
joan ezin nintekeen mendira.
Kate tristeok laburrak dira

2)
Inoiz irten naiz etxetik gora
oihan zokotik mendi kaskora
goizean goizik etxera sartu
nehor ez dadin nitaz ohartu.
Egun, euriak harrapatzean
sartu naiz ardi borda batean
argi begiak
ikatzez margoturik hizkiak
gerla garaiko iheslariak.

3)
Euskal izenak dagoz lerroan
haien urratsak ditut gogoan.
Beren lurretik doaz ihesi
itzulerakoik ez dut ikusi.
Urteen karga hor daramate
euskal herria zer den diote.
Bihotz dardara…
ni ere berdin nator bordara,
zu kondairaren gordailu zara.

4)
Egur zaharreko lanai begira
galdezka nago: non ote dira?
Hainbat iragan zure barnetik
orain ni ere bide beretik.
Borda zahar zure baitan dabila
abertzale on oihu ixila.
Zaude lekuko.
Egiaz joka nahi dugulako
gure burruka ez da galduko.

5)
Zu hor zutitu zintuztenetik
zenbat hil dira herriagatik?
Ikusi duzu hainbat gudari
odol isurtzen bere lurrari.
Abertzaleak ez du etsiko
etsaien esku ez du utziko.
Zu ez erori.
Ireki zugan heldu denari
lehengo liburu zahar bat iduri.

6)
Euskal sustraien arnas bizia
zutan badago zer ikasia.
Barkatu gure eskerrik eza
jarrai eskaintzen zure babesa
gure lurrean oinperatuak
bakardadera kondenatuak
gu eta euskera
zure barnean bilduko gera
zazpi lurralde denok batera.

urrunda zeru urdina
urrutasunaren mina
gainetik kendu ezina
espetxeetan dauden kaientzat
besarkadarik handina
ni urrun bizi naizbaina
egin nahidut alegina
ahal badut atera mina

2002. urriak 16 —

Xanti Iparragirre (iheslaria)